

# aikor.

TOKIKOM

2024ko abendua · #253



J MARTINA

## Neguko jauregian

# eskerrik asko

Adarve kafetegia · ADR Jata Ondo - Uribe · AEK Derio · Agrojardin Astikene · Alaia frutadenda · Alberto harategia · Aldekone hortz klinika · Ama3 taberna · Amar ileapaindegia · Ana Belen ileapaindegia · Aramendi Gozotegia · Arantza · Amondarain ginekologoa · Aretxabala taberna · Arteaga estankoa · Artile Artean · Asesoria Diza Astikene motor · Aurregoiti jatetxea · Aurrera ikuskizunak · Auzokide · Basalbeiti Txalolina · Baserri Antzokia · Bertoko · Café Fernan · Café-bar Bidegorri · Carniceria Aitor - Basque Label Harategiak · Clinica dental Txorierri · Clinica dental Zainduz Derioko eskola · Derioko Udala · Egarri taberna · Eguzkibegi ikastola · Ekhi estudio Ekipatu · El punto Bobo · Electricidad Derio · Eliana janari-denda · Elorrieta instalaciones · Enaitz taberna · Estetica Bell · Estudios 10 ikastegia · Etorri taberna Euskara elkarteak · Ford Goiri · Foteri taberna · Gandiaga Hortz Klinika · Garaje Aurtenetxe · Gaztedi taberna · Gazteleku taberna · Gestión Zamudio · Goiener · Gure Etxea taberna · Gurena egoitza · Ibarrondo fisioterapia · Idoia Zubieta Hortz Klinika IN Sukaldeak · Irrikazu · Irusta taberna · IZ ileapaindegia · Koloretakoak fruta denda Kontsumobide · Lagatzu · Lagunkor asesoria · Lainomendi · Landabarri katetegia Larrabetzu eta Derio musika eskola · Larrabetzuko batzokia · Larrabetzuko eskola Larrabetzuko Udala · Lasarte hortz klinika · Leire Begoña ule-apaindegia · Lezama kooperatiba · Lezamako eskola · Lezamako Udala · Liliak loradenda · Loteria Zamudio M<sup>a</sup> Antonia Llodio ileapaindegia · Manko · Maria Luisa jatetxea · Nekazamudio Oakland · Optika Ikuslan · Oxangoiti kultur elkartea · Patxi koop. · Pikoteo taberna Politeknika Txorierri · Pozgarri kafetegia-hanbureseria · PsikoNeuro Txorierri · Radio taxi Femade · Restaurante Julen Guerrero · Sarraila · Sarrikola · Satori fitness Sondigarbi · Sondikako Udala · Squat · Sueños ikuskizuna · Suit Delux · Toldos Txorierri Torrealday · Txispamendi herriko denda · Txorierri inmobiliaria · Txorierri institutua BHI · Udal Euskaltegia · Udalak · Uriben hostalaritza · Xaker kirolak · Yedra loradenda Zamudioko eskola · Zamudioko kooperatiba · Zamudioko liburudenda · Zamudioko Udala · Zirikada jatetxea · Zuhaizti haurreskola

**2024ko bezeroei.**

INFORMAZIO GEHIAGO:

[www.aikor.eus](http://www.aikor.eus)

688 864 135

**aikor.**

# aikor.

Argitaratzailea:  
**TOTOAN Txorierriko Euskara Elkarte**  
**Federazioa** (Lagatzu, Zorritzetan, Altzora,  
Darabilgu eta Tximintx komunitatea)

Zuzendaria:  
Xabier Goienetxe

Erredakzio burua:  
Itxaso Marina

Maketatzailea:  
Aner Mentxaka

Publizitatea:  
Ruth Bilbao (688 782 642)

Zuzentzaileak:  
Iñaki Astorkiza  
Oihana Astobieta

Kolaboratzaileak:  
Maria Gorosarri  
Iñaki Atxutegi  
Idoia Andres  
Juanjo Ortiz  
@txiribita\_mundi  
Nagore Lopategui Escallada  
Iñaki Olabarrieta  
Jose Angel Mentxaka

Inprimategia:  
Gertu

Banaketa:  
Eragin

Ale kopurua:  
8.000

Lege gordailua:  
BI 137-02 ISSN 1578-9322

aikortxori@aikor.com  
688 864 135 · 747 406 561

**aikor aldizkariak** ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen edota  
iritzien erantzukizunik.

**CC BY-SA 3.0**

Aitortu - Partekatu Berdin 3.0 Moldatu gabea



## SUMARIOA

- 4 Iritzia eta gutuna
- 6 Berri laburrak
- 12 **Toti Martinez de Lezea**
- 14 **Zuhaizti haur eskola**  
**DIRUZ BABESTUTAKO EDUKIA**
- 16 **Felix Fraile**
- 18 Txoriberri
- 20 **J Martina**
- 24 **Gabonetako egitarauak**
- 28 **Euskararen Astea**
- 30 EMAUS
- 31 Sorlekua  
"Koloretako ametsak"
- 32 Menditik Patxadaz  
**P lerroko bunkerrak Nafarroan (I)**
- 34 Herbarioa  
**Berbena**
- 36 Sukaldaritza  
**Gabonetako menua**
- 38 Denbora-pasak

DIRUZ LAGUNDUTAKO ALDIZKARIA



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

## IRITZIA

## Ustezko gezurriak

**I**ndarkeria matxista andreak menderatzeko muturrezko tresna da eta, hala ere, lar ohikoa da. Aurten, sei andre hil dituzte haien bikotekideek. Andre horiek bikotekide ezegokia aukeratu zutela ematen du. Albistea, baina, alderantzizkoa da: gizon matxista bakoitzak bere bikotekideari eraso egiten dionez, aurten Euskal Herrian sei gizon matxistak haien bikotekidea

hil dute. Horrela, argiago ikusten dugu indarkeria matxista ez dela andreen erabaki okerra, baizik eta gizon matxisten hautua.

Ildo beretik, erasoaren berri emateko, atxilotuaren errugabetasun presuntzioa (“ustezko erasotzailea”) baino, hedabideek eraso bera zalantzan ipintzen dute “ustezko eraso” diotenean, salaketa faltsua izan daitekeela aditzera ema-

ten dute-eta. 1996tik 2016rako albisteak aztertuta, hedabideek “ustezkokeriak” sustatzen dituztela egiaztatuta geratu da: salatzailea andrazkoa denean, ustezkokerien kopurua, gizonen aurkako erasoekin alderatuta, bikoitza izaten da. Jokabide hori 2005etik hona biderkatu da, Espainiako Genero Legearen aurkako hedabideen erreakzio patriarkal argia izan dela agerian geratuz.

**MARIA GOROSARRI**  
EHUko irakaslea

## Ulertu nahian (eta ezin)

**G**arai nahasiak dira gureak. Interesgarria izango da Historia liburuek kontatuko dutena, baina egunero-egunero berriak irakurtzeak buruko min galantak ematen dizkit.

Ez dakit oraindik zer gertatuko den Estatu Batuetan Donald Trumpek presidentzia bigarren aldiz hartuko duenean. Seguru titular piloak emango duela, eta guk galdetuko diogu gure buruari zelan bozkatu daitekeen honelako pertsona baten alde.

Gizon indartsuak, iliberalak, artez-arte autoritarioak modan omen daude munduan zehar. Hor daude Putin, Trump, Maduro, Netanyahu,... eta niretzat deigarriena dena: Argentinako presidentea den Javier Milei.

Ez zait gustatzen esatea herri batek oker bozkatu duela, edo beste herri ba-

tekoak tontoak direla, edo beste batzuk ezjakin-andana direla. Kostatzen zait sinestea hainbeste tonto eta ezjakin daudela munduan zehar. Beste arrazoiren bat egon behar da. Akordatu nintzen badaukadala Argentinan jaiotako laguna, eta berari eskatu nion Mileiri buruz daukan iritzia.

Ezin kafea lasai hartu. Bere erantzunek zur eta lur utzi ninduten. Bere burua ezkertiarizat jotzen zuen, eta Mileiren aldekoa zela esan zuen. Kontraesana zela erantzun nion, baina berak kontraesanik ez zegoela erantzun zidan: “Ez duzu ezer ulertzen. Hemen ez duzue ezer ulertzen. Han beste era batera ikusten dute. Urte luze hauetan ustelkeria galanta izan da gure herrian. Ikaragarria. Orain arteko gobernuek lapurtu dute lapurtu daitekeen gutzia. Begira noraino ailegatzen den: ba-

daude lanpostu publikoak dauzkatena eta lanera joan gabe soldata jasotzen dutenak. Eta beste batzuk daude lanean eta kobratzen leku berean. Lanpostu publiko bat eta soldata bi ordaintzen dira. Edo hiru. Eta ez dira bat, bi edo dozena erdi. Bozkatu dena erreakzioa da ustelkeriaren eta lapurretaren kontra. Milei burutik eginda dago, bai, baina hain zuzen ere horregatik, burutik dagoelako, pikutara bidaliko ditu lapurrak.”

Horren aurrean esateko gutxi zegoen. Igarri egiten zen aldaketa nahi zutela. Agian ondorioetan pentsatu gabe. Zoritxarrez, Historiak erakusten digu zenbait aldaketen ondorioz asko okerrago amaitu daitekeela aldaketaren aurretik baino. Edo asmatuko ote dute? Ikusiko dugu Historiako liburuak idatzi baino lehen.

**IÑAKI ATXUTEGI**  
Kazetaria

## GUTUNA

## Guztiontzako hezkuntza?

YOLANDA ISASI

**I**nklusioa izateaz harro dago euskal hezkuntza publikoa, baina nik hurrengo galdera hauek egin nahiko nituzke: Non daude desgaitasuna duten Txorierriko umeak? Non daude, laguntza-beharrizan handia dutelako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) matriculatu ez duten umeak?

Legez ezarrita dagoenez, ume horiei hezkuntza-eskubidea bermatu behar zaie, aukeratutako ikastetxean eta behar duten laguntza jasotzen dutela. Hala ere, Bizkai osoan barreiatuta dauden ikasgela bereziak –ikasgela segregatzaileetara– bidaltzen dituzte, lekurik dagoen bakarrik kontuan hartuta, edo irizpide burokratiko, zonal,

ekonomiko eta abarren arabera. Berdin dio Mungia, Leioa, Getxo... bada. Ez du ardurarik ematen gizartean parte hartzeko zailtasunak dituzten pertsona zaugarriak euren inguru naturaletik ateratzea, ezta? Bai, eskolaz kanpoko ekintzetan, udalekuetan, gazte guneetan eta gainerako zerbitzuetan ere lekurik ez duten pertsona horiek...

Deriokoa da DBH ematen duten Bizkaiko zentrorik handienetako bat, eta, estatistikei erreparatuta, bertan gutxien hiru gela egonkor egon beharko lirakeke, ikasle-mota honek aukeratutako ikastetxean hezkuntza jasotzeko eskubidea izan dezan, bere komunitatean, baina ezta hori ere. Eta tristeena da, bere fa-

miliari izan ezik, inori ez zaiola inporta.

Desgaitasuna duen ume baten ama naizen heinean, eskatzen dut enpatia apur bat eta alde guztien laguntza –udalak, ikastetxeak, gurasoen eta familien elkarteak, Derioko institutuko zuzendaritza–, zaugarrienak direnak gure ingurutik ez kanporatzeko. Sistema honek aldutzen eta ezkatzen ditu, antzina bezala; hitzontzikeria hutsa bihurtzen ditu inklusioa eta aniztasuna. Suposatzen dut horiek ez direla gure gazteengan eta gizartean bultzatu nahi ditugun balioak. Gizarte-inplikazio apur bat eskertuko nuke guztiontzako Txorierrilortzeko. Eskerrik asko, bihotz-bihotzez.



Kezkaren bat adierazi nahi baduzu edo zerbait esateko baduzu, gutuna idatzi ahal duzu, eta aikortxori@aikor.com helbide elektronikora bidali.

**TOLDOS TXORIERRI**  
TOLDOS B. GOYOAGA

Lona industrialak  
Sareak  
Eguzki-ohialak  
Alokatzeko Ionak

Torrelarragoiti ind, P2  
48170 Zamudio  
Tel.: 94 452 12 58  
Faxa: 94 452 07 44  
Gasolindegia ondoan

POLITEKNIKA TXORIERRI

**HEGAN**  
egiteko aukerak

Formación Profesional y Bachillerato  
**Lanbide Heziketa eta Batxilergoa**

Emari izena: politeknikatxorierra.eus

HETEL

## BERRI LABURRAK



### ***Aikor* aldizkariak aipamen berezia jaso du *BizkaiaGara* sarietan**

Abenduaren 4an, *BizkaiaGara* sariak banatu ziren Derioko Kultur Birikan. Sariak Boluntzariotzaren Nazioarteko Egunaren baitan daude, eta jendaurrean aitortzen dute pertsonen eta lurraldearen bizitza hobetzeko hainbat lagunek eta eragilek egiten duten lana. *Aikor* aldizkariak aipamen berezia jaso zuen, “euskarara bultzatzeko egiten duen lanagatik eta Txorierriko biztanleen kohesioari egiten dion ekarpenagatik”.

Saria Xabier Goienetxe aldizkariaren zuzendariak jaso zuen. Esan zuenez, *Aikor* aldizkarian ondo dakigu boluntarioritza zer den eta zein garrantzitsua den. Izan ere, aldizkaria 2001eko abenduan kaleratu zen lehen aldiz, eta bere sorreratik hona, langileoz gainera, hainbat lagunek hainbat arlotan musu-truk egin dute eta egiten dute lan, egitasmoa garatzeko

eta sendotzeko. Lan desinteresatua *Aikor* aldizkarian ez ezik, TOTOAN Txorierriko Euskara Elkartearen Federazioaren gainerako proiektuetan ere egin dute; hala nola, *Lan Txorierrri* enpresa-urtekarian, Berbalagun egitasmoan eta Baserri Antzokian. Hortaz, eurentzat guztientzat da *BizkaiaGara* sarietako aipamen berezia.

Ekitaldian hiru sari banatu ziren. BizkaiaGara sarietako bat Ausartzen irabazi-asmorik gabeko elkarteak jaso zuen. Erandioko elkarteak egoera zaurgarrian dauden gazteekin egiten du lan. ErrazTEA APNABI elkartearen proiektuak ere jaso zuen saria. APNABI Autismo Bizkaiak Derion du eguneko zentroa, eta ErrazTEA proiektuaren bidez sustatzen du desgaitasun intelektuala edo autismoa duten pertsonak eremu pribatu eta publikoetara sartu ahal izatea. Azken saria

Sira Elorriaga derioztarrari eman zioten bere ibilbidearengatik. Elorriaga Sutondoan elkartearen sortzaileetako bat izan zen duela 30 urte, eta partehartze aktiboa izan du udalerriko bizitza kulturalean eta sozialean. Bestalde, Aikor aldizkariak gainera, Sondikako Gorantzaileak dantza taldeak ere jaso zuen aipamen berezia. Dantza taldea 1968an sortu zen, eta harrizkeroko taldearen boluntarioak lan ikaragarria egiten dabilta euskal kultura eta folklorea zaintzeko eta zabaltzeko.

Bizkaiko Foru Aldundiak, BBK-k eta EDE Fundazioak sustatutako egitasmoa dira *BizkaiaGara* sariak. Esan moduan, esker ona adierazi diete pertsonen eta lurraldearen bizitza hobetzeko bokazioagatik, lanagatik eta laguntzagatik nabarmendu diren pertsonen eta gizarte-eragileei.

### **Txorierriko 14 enpresek konpromisoa hartu dute euskararekin**

Abenduaren 4an, HABIA egitasmoa aurkeztu zen Derioko Kultur Birikan. Egitasmoak Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak bultzatu du Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin, eta hurrengo helburu hauek ditu: ekosistema egokia sortzea, lan-eremuan euskararen erabilera aktibatzea, enpresei euren ibilbidean laguntzea eta euskarerikiko konpromisora enpresa berriak erakartzea. Eskualdeko 12 enpresek eta Lanbide Heziketako bi ikastetxek egin dute bat HABIA egitasmoarekin.

Enpresa horien artean daude Lantegi Batuak, LORRA, Patxikoop eta Politeknika Txorierrri. Azken hilabeteetan, Ahize-AEK-ko teknikariek ibili dira lanean, “euskarerikiko konpromisoa helburu zehatzetan gauzatzeko eta lan-eremuan euskararen erabilera aurrera egin ahal izateko”. Egitasmoak egunerokotasunean euskara erabiltzen duten enpresen sarea sortzea du helburu, jardunbide egokiak partekatzeko, eta konpromiso horrekin bat egin nahi duten enpresa berrientzako eredu eta pizgarri izan daitezen.

Aurkezpen-ekitaldian izan ziren Sonia Rodriguez, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Sailburuordetzako Hizkuntza Ikerketa eta Koordinazioko zuzendaria; Ainara Basurko, Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko diputatua; Isaac Amezaga Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara zuzendaria; Txorierriko alkateak; eta Jon Ander Aurrekoetxea, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko presidentea eta Lezamako alkatea. Basurkok azpimarratu zuenez, “euskarak balio erantsia du enpresa-munduan eta euskarak ondo kudeatzeak eragiten du enpresen lehiakortasunean”.

# ATE IREKIAK Puertas Abiertas

Urtarrilak 12 Enero  
10:00etan

KALITATEZKO HEZKUNTZA  
EUSKALDUNA

0 - 16 urte



**EGUZZKIBEGI**  
IKASTOLA KOOP S

TEL.: 944 56 02 64  
IDAZKARIA@EGUZZKIBEGI.NET  
WWW.EGUZZKIBEGI.EUS





## BERRI LABURRAK



### Institutuko ikasleak eguzkitako krema ez kutsakorra sortzen dabilta Alemaniako ikastetxe bateko ikasleekin batera

Erasmus egitasmoaren bidez, Txorierrri Institutua elkarlanean dabil Alemaniako Saarbruck ikastetxe franko-alemanarekin. Susana Cuesta eta Irantzu Randez irakasleak dira proiektuaren arduradunak, eta azaldu dutenez, ikasleek eguzkitako krema ez kutsakorra sortuko dute.

Proiektua da Laborategi Teknika ikasten dabiltzan Batxilergoko I. mailako ikasleentzat, baina leku libre egon denez, Lan Jarduera ikasten dabiltzan DBHko 4. mailako ikasleei ere eman zaie bertan parte hartzeko aukera, "irakasgai antzekoak direlako". Guztira Txorierrriko 26 gazte dabilta proiektuan, eta Alemaniako 24 ikasle. "Kutsakorra ez den eguzkitako krema sortu behar dute, eta horretarako, hainbat pauso egin: itsasoko ura aztertzea,

udan erabilitako kremek kutsatu duten ikusteko, Europako araudiak ere aztertzea... Eta, azkenean, eguzki-babes naturalak erabilita sortuko dute krema ez kutsakor bat". Proiektua gehienbat ingelesez egiten dabilta.

Saarbruck ikastetxeko ikasleak azaroaren 24tik abenduaren 5era bitartean izan ziren Txorierrin. "Eguzki-krema sortzetik harago, egitasmoak beste helburu batzuk ditu, hala nola beste herri bateko hizkuntza, ohiturak eta kultura ezagutzea, gazteengan kontzientzia ekologikoa piztea eta, European gugan eragina duten neurriak hartzen direla kontuan hartuta, ikasleak jabetzea Europa benetan zer den eta elkarlana zelan egiten den". Horrela, Alemaniako ikasleek bisitatu dituzte Bilboko Alde Zaha-

rra eta Guggenheim museoa, eta Euskal Herriko Unibertsitateak Plentzian duen laborategian ere izan dira. Gainera, Euskararen Nazioarteko Eguna dela-eta institutuan antolatutako ekitaldietan parte hartu ahal izan dute. "Gu otsailaren 6tik 13ra bitartean joango gara Alemaniara, eta beste ekintza batzuen artean, Estraburgora joango gara, Europako Parlamentura. Eguzkitako krema ez kutsakorra sortu, eta ondorioak atera beharko dituzte ikasleek. Ea txostena baten bati emateko aukera duten!".

Ikasleekin batera hiru irakasle joango dira Alemaniara. Kontatu duten moduan, elkartrukea 2017an hasi ziren egiten, eta balorazioa erabat positiboa da. Aurreko urteetan hizkuntzari lotutako proiektuak garatu dituzte.

*Zorionak*  
eta urte berri on

APAR-FESTA · PUZGARRIAK · ESKOLAKO JAIAK  
TAILERRAK · ROBOTIKA · DISKO-FESTA

**irrikazu**  
ANIMAZIOA

irrika@irrikazu.com · 656 786 959 · 688 892 013  
[www.irrikazu.com](http://www.irrikazu.com)

*Zorionak eta  
Urte Berri On*

*Liliak*  
Loradenda

www.liliak.net  
facebook: liliak loradenda  
amaia.menteria@euskalnet.net

Erdiko Kalea, 2 · DERIO  
94 454 12 23

## BERRI LABURRAK



### Aireportuko Zarataren Planari aurkeztutako alegazioek pertsonen bizi-kalitatea erdigunean jartzen dute, EH Bilduren esanetan

EH Bilduk jakinarazi duenez, guztira 13 alegazio aurkeztu dizkiote Bilboko Aireportuko Zarataren aurkako Ekintza Planari. Alegazioek Loiuko aireportuaren inguruan bizi diren pertsonen bizi-kalitatea erdigunean jartzea dute helburu, eta Irati Aretxabaleta Zamudioko EH Bilduko zinegotziak azaldu moduan, alegazioen dokumentua elkarrekin egin dute udalerrietako bizilagunek eta zinegotziek, teknikariek eta EH Bilduko beste ordezkari instituzionalek, “aireportuaren eragina handitu ez dadin, eta urteak eta urteak jasaten daramatzaguna minimizatu dadin laguntzeko”.

Aretxabaletak esan du guztira 13 alegazio erregistratu direla lau eremutan: operazio- eta kudeaketa-aldaketak lu-

rerreratzeetan eta aireratzeetan; zaratarik handiena eragiten duten jardueren ordutegiak murriztea; ingurunea eta pertsonen osasuna babesteko neurriak; eta hegaldiei, operazioei eta erabiltzailekopuruari dagokienez, euskal aireportu guztien arteko oreka eta kudeaketa handiagoa lortzea.

Azpmarratu duten moduan, “bere ez-augarriengatik, Loiuko aireportua ezin da handitu inguruko pertsoneri eta lurraldeari eragin gabe. Forondako aireportuaren kasuan, aldiz, udalerririk mugakideetan ez dute hainbeste zarata pairatzen, eta eragozpen operatiboa ez da hain handia. Gainera, Bilbotik 45 minutura dago errepidez”. Agerraldian Iker Casanova EH Bilduko Bizkaiko bozeramaileak ere

hartu du parte, Txorierriko eta Uribe Kostako zinegotziekin batera. Gaineratu zenez, “Loiuko aireportuak baditu muga eta operazio-arriskuak hainbat mailatan, eta aireportua zabaltzeak arazo horiek areagotuko lituzke”.

Azkenik, bere esanetan, euskal erakundeek, aireportuen kudeatzaileak eta hegazkin-konpainiek lankidetzaz-esparru iraunkorak sortu behar dituzte, “gure aireportuen arteko egungo lehia-joerak birbideratzeko eta alternatibak irekitzeko, modu mailakatu eta errealistan, euskal aireportu guztien arteko eragiketen orekan oinarrituko den «aireportu bat, hiru terminal» -bost, Euskal Herrian- formula bideratzeko”.

Euskararen Eguna

**AEK,  
euskara  
urte osoan  
eroso bizitzeko**

**aek**  
euskara praktikoa

## BERRI LABURRAK

### Eskola kooperatiboen ODS zigilua jaso du Politeknika Txorierrik

Saria Madrilen egin zen “Irakaskuntzako Kooperatibak eta haien zeregina 2030 Agendan” jardunaldian jaso zuen. Estatuko Irakaskuntza Kooperatiben Federazioak (UECOE) ematen du saria, eta haren bidez nabarmentzen da ikastetxeak Garapen Iraunkorreko Helburuekin (GJH) eta 2030 Agendarekin duen konpromisoa.

Politeknika Txorierriko arduradunek adierazi dutenez, saria jasotzeko beharrezkoa zen GJHei lotutako ikastetxeek egindako ekimenen dokumentazioa aurkeztea. Formatu horren barruan bi modalitate zeuden: A modalitatea, esperientzia puntualak biltzen zituena; eta B modalitatea, urteko esperientzia bertikalak nabarmentzen zituena. “Politeknika Txorierrik bietan aurkeztu zuen dokumentazioa. Asmo handiko proiektu honen bidez erakutsi du bere prestakuntza-eskaintzan iraunkortasuna txertatzeko gaitasuna duela, ikasleak ikasgeletatik haratago doazen eta komunitateari zuzenean eragiten dioten ekimenetan inplikatur”.

Esperientzia puntualek ikasleen, irakasleen eta tokiko eragileen arteko lankidetzaren sustatu dute. “Ekintza horien bitartez, loturak sortu dira hainbat

elkarte edo erakunderekin, hala nola Derioko Udalarekin, Igurcorekin (adinekoentzako eguneko zentroak), APNABirekin (autismoaren espektroko nahasmenak duten pertsonen elkarteak) eta EMAUSEkin (gizartetik kanpo dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonen lan egiten duena).

Bestalde, azaldu moduan, ikasturtean garatzen diren ekimenei esker lortu dute ikasleek epe luzerako konpromisoa hartzea etorkizun jasangarrira bideratutako jarduerekin. “Prestakuntzaz gainera, gizarte-konpromisoaren eta ingurumen-erantzukizunaren balioa ere irakasten du Politeknika Txorierrik. Besteak beste, harremanetan izan gara BABekin (Bizkaiko elikagaien bankuak), LAGUNARTEANekin (etxebizitzarik eta baliabiderik ez duten pertsonen elkarteak) eta APASOS (animaliak babesteko elkarteak).

Politeknika Txorierriko arduradunen esanetan, saria da beste eragile batzuekin batera inguruan GJHak ezartzeko ahaleginaren isla. “Aliantza horiek indartzeko lanean jarraituko dugu, eta aldaketa positiboa bultzatzen duten ekimen berriak garatuko ditugu, bai ikastetxean, bai inguruan”.



### Hainbat tailer antolatu ditu Garrasiak

Garrasia Sondikako talde feministak hainbat tailer antolatu ditu datozen egun eta hilabeteetarako. Tailer guztiak doakoak izango dira, eta izena emateko, garrasiatf@gmail.com helbide elektronikora idatzi behar da. Josteko tailer mistoa dagoeneko eginda dute, baina hurrengoak, autodefentsa-tailerra, abenduaren 28an egingo da Artebe kiroldegian. Tailerra Eva Rodriguez adituak gidatuko du, eta 11:00etatik 13:00etara izango da.

Bestalde, datak oraindik zehaztuta ez dituzten arren, martxotik aurrera ere tailerrak egiteko asmoa dute: errenta-aitorpena, martxoan; autoestimua, apirilean; defentsa-tailerren bigarren zatia, maiatzean; eta mekanika-tailerra, ekainean. Datak eta lekuak aurrerago jakinaraziko dituzte. Tailerren helburua da pertsonen autonomia handitzea.

Txorierri El., 30  
48150 SONDIKA



PEÑA ATHLETIC  
BETI HARROBIA

Zorionak eta  
urte berri on

# Enaitz

TABERNA

Ogitaratekoak  
Anoak

640 26 84 15  
94 455 42 15  
Garaioltza, 74  
Lezama

## BASALBEITIKO TXAKOLINA

Bizkaiko Txakolina  
Denominazio de Orjina



Goitioztza auzoa, 37  
(LEZAMA)  
94 455 61 46

## Sondigarbi GARBITEGIA

ITURRIGANE, 2      EGUNERO  
635584941      8:00-22:00

## KURREGOITI JATETXEA

Lauroeta etorbidea, 27  
48180 Lolu-Bizkaia  
T-Faxo: 94 453 24 40  
restauranteaurregoiti.com



# Pertsona arrunten istorioa

**TOTI MARTINEZ DE LEZEA**  
Idazlea



T ITXASO MARINA

Toti Martinez de Lezea Larrabetzuko idazleak bere azken eleberria kaleratu du: *L'Arratien taberna*. Tabernaren izena frantsesa izan arren, istorioa Mundakan kokatu du. Izan ere, jabearen senarra, Arratiakoa bera, Iparraldera joan ohi zen arrantza egitera, eta bertan *L'Arratien* esaten zioten. Inguru zoragarria aukeratu du pertsonaien gorabeherak kontatzeko; funtsean, gutariko edonorenak izan daitezkeenak, istorioa gaur egungo garaian gertatzen da eta.

“O rainaldian girotutako liburua idaztea errazagoa da, ez delako dokumentazio-lanik egin behar, eta bizitzen ari garen momentua denez, badakigu zelangorropo janzten dugun, leku batetik bestera zelan joaten garen... Hala ere, apustua da nire kasuan. Egia da *La editorial* eleberrian eta *El maizal* liburuaren azken zatian ere istorioa gaur egungo garaietara ekarri nuela, baina *L'Arratien taberna* eleberrian orain erabili dut; hau da, «joan ziren eta jan zuten» erabili beharrean, «doaz eta jaten dute» erabili dut. Idazteko beste erritmo bat eta beste modu bat dira,


eta saiatu behar nuen, erronkak asko gustatzen zaizkidalako. Oso pozik nago emaitzarekin”, azaldu digu egileak.

*L'Arratien taberna* agertoki nagusia dela, itsasaldeko herri bateko biztanleen egunerokotasuna hurbiltzen digu idazleak; euren bizipenak eta kezkek. “Nahiz eta gauza asko gertatzen diren, ez da ezer apartekorik gertatzen. Guztion egunerokotasuneko gauzak dira”. Nolanahi ere, irakurle batek ohartarazi dion moduan, bigarren aukeraz hitz egiten duen liburua da. “Taberna oso egoera txarrean dago, baina sukaldari berria ailegatzen da eta berrabiarazten du; sukaldaria bere buruaz beste egitea

pentsatzen dabil, baina lana topatzen du tabernan; tabernaren jabea erretiroa noiz etorriko zain dago, baina negozioa funtzionatzen hasten da berriro; dibortziatu den neska herrira itzultzen da alabarekin, eta aitarekin harremanetan izaten da berriro... Pertsonaia guztiek bigarren aukerarik ez badute ere, nagusiek badute”.

## UMOREZ

Lezeak ondo ezagutzen duen herria da Mundaka, eta horregatik erabaki du istorioa bertan kokatzea. “Oso inguru polita da, eta lagunak ditut han. Hortaz, aitzakia eman dit liburuan



## Hainbat proiektu

Martinez de Lezeak proiektu batzuk ditu mahai gainean, baina aitortu digu ez dakiela hurrengo eleberria zein arotan kokatuko duen. “Nobela historikoa egiteak oso ahalegin handia eskatzen du dokumentazio eta ikaste aldetik, egiten bada, ondo egin behar delako: ezin dira Erdi Aroan tomateak ipini”. Gainera, aipatu digu hainbat egitasmotan murgilduta dagoela. “*Nur eta Afrikarako bidaia* gaztetxoentzako liburua ere kaleratu dut, eta *La voz de Lug* liburua Toti Martínez de Lezea Bibliotekan sartu denez, aprobetxatu dut hura zuzentzeko: semantika, gramatika, txarto ipinitako puntuazio-markak...”. Bestalde, duela urte batzuk kontatzeko ipuinak idatzi zituen umeentzat, eta apirilean edizio berria kaleratuko da. “Era berean, Gorka Hermosarekin eta Edurne Zabalorekin nabil musika-ekitaldiak egiten, eta abestiak eta poesia idazten hasi naiz”.

## “Orainaldian girotutako liburua idaztea errazagoa da, ez delako dokumentazio-lanik egin behar; hala ere, apustua da nire kasuan”

dauden gaietaz buruz hitz egiteko: turismo masifikatua, etxebizitzaren prezioa garestitzea, gazteek herritik alde egin behar izatea, Urdaibaiko Guggenheim museoa, espekulazioa, goi mailako sukaldaritza, Gaztelugatxe... Bizi diren

tokian bizitzeagatik kezkatzen dituzten gaiak dituzte hizpide protagonistek”. Egileak adierazi duen moduan, liburua ironiaz eta umorez idatzita dago, eta ez du inor mintzeko asmorik.

Beste alde batetik, larrabetzuarrak nabarmendu du eleberraren bizitasuna. “Ez dago kapitulurik, sekuentzia bisualak baizik. Izan ere, zu eta biok hitz egiten ari garen bitartean, beste leku batean ere badaude pertsonak hitz egiten edo zerbait egiten. Gainera, pertsonaia nagusietako hiru 70 urtetik gorakoak dira. Zergatik? Bada, adin horretakoak erabat desagertuta gaude-lako... Beraz, gazteak eta nagusiak maila berean ipini ditut. Azkar irakurtzen den liburua da, eta istorioa ere gidoi aproposa izan daiteke ikus-entzunezko lanen batentzat (kar-kar)”.

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu

**Estudios 10** Ikastegia

Kolixa Plaza, 2 - 4. D      Pakearen Plaza, 3 - behea  
48160 Derio (Bizkaia)      48160 Derio (Bizkaia)  
Tel: 944 54 27 19      Tel: 944 54 50 13

Hortz-klinika  
**IDOIA ZUBIETA**

Osasun-zentroa & Hortz-estetika  
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Areitza doktorea, 11. - 1. edk.      Uribe Plaza, 1  
48011 BILBAO      48170 ZAMUDIO  
T: 944 416 322      T: 944 521 370

**HARATEGIA**  
**ALBERTO**

Arbolantxa, 4  
Tel.: 944 520 825  
48170 ZAMUDIO

**IZ**  
ILE APAINDEGIA  
946036943  
Txantxarpete s/2  
ZAMUDIO  
iz.ileapaindegia@gmail.com

LIBURUDENDA PAPERDENDA  
**ZAMUDIO**

EGUNEROKO PRENTSA, SALGAI

Gorbea kalea, 5      Tlf. / Faxa:  
48170 ZAMUDIO      94 452 29 10



## ZUHAIZTI HAUR ESKOLA

# Umea, hezkuntza-prozesuaren protagonista

Zuhaizti haur-eskola aitzindaria da, 2004an ohikoa ez den inguru batean atek zabaldu zituelako; Zamudioko Zientzia eta Teknologia Parkean hain zuzen. Baina hori ez da bereizten duen ezaugarri bakarra. Umea hezkuntza-prozesuaren erdigunean ipintzen du Zuhaizti haur-eskola, eta pedagogia aktiboa erabiltzen du, inguru lasai batean, ume bakoitzaren beharrezanetara eta erritmora egokitzeko. Familiengandik hurbil ere badago, eta ordutegi malgua eta prezio lehiakorrek eskaintzen ditu, lana eta umeen hazkuntza uztartu ahal izateko.



**H**ezkuntza-berrikuntza da Zuhaizti haur-eskolaren oinarriko zutabeetako bat. Horrela, umeen garapenari buruzko azken ebidentzia zientifikoetan oinarritutako hezkuntza eskaintzen dute, ume bakoitzak bere beharrezan eta gaitasunetara egokitutako heziketa jasotzen duela bermatzeko. Beraz, euren hezkuntza-estrategia diseinatzeko, hurbiletik jarraitzen diete neurozientzian, garapen-psikologian eta pedagogian egin berriko ikerketei. “Ez daude bi ume berdin, eta horregatik, ume bakoitzaren banakotasuna errespetatzen eta bultzatzen duten programak erabiltzen ditugu. Ekintzak ume

bakoitzaren gaitasun, interes eta beharrezanetara egokitzen ditugu, ikasketa-prozesu aktiboa eta garrantzitsua bultzatuz. Umeak dira ikasketa-prozesuaren protagonistak, eta, gure hezitzaileen gidaritzapean, euren intereseko materialak eta ekintzak aukeratzen dituzte”.

Zuhaizti haur-eskolaren proposamen hezigarriak bila-kaera handia izan du urteetan zehar. “Pedagogia aktiboak integratu ditugu, hala nola Montessori, Pikler eta Reggio



Emilia. Ume bakoitzaren erritmoa errespetatzeaz gainera, pedagogia horiek sustatzen dituzte bere autonomia, sormena eta ezagutzeko eta aztertzeko gaitasuna. Hori guztia, errespetuzko hezkuntzaren begiradatik”. Hortaz, joko librean, zentzumenak erabiltzea eta autonomia gartzea bultzatzen dituzte, eta harreman estu-estua dute familiekin, ume bakoitzak behar duen laguntza jasotzen duela ziurtatzeko.





## Inguru lasaia eta naturala

Errespetua, enpatia, jakin-mina eta autonomia bultzatzen dituzte umeengan. “Euren buruan uste osokoa izatea nahi dugu, mundua ezagutzeko gogoia izan dezaten eta gainerakoekin harreman positiboak izan ditzaten”. Pedagogia aktiboen bidez hezten dituzte ume zoriontsuak, autonomoak eta etengabeko ikasketarako joera dutenak. “Metodologia horiek laguntzen diete, alde batetik, ezagutzak barneratzen, eta bestetik, bizitzaren erronkei arrakastaz aurre egiteko beharrezkoak diren gaitasunak eta balioak garatzen, lehen urteetatik osorik garatu daitezela ahalbidetuz”. Kokagune ezin hobean daude umeen garapenerako. “Inguru lasai eta natural batean egiten dugu lan, eta patio handia eta segurua dugu, non umeek natura gozatu ahal duten, esploratu eta aire zabalean jolastu. Ingurua mesedegarria da ongizaterako eta ingurumenarekin bat egiteko, eta ahalbidetzen du umeak gune osasungarri eta suspergarri batean heztea. Horrek gure hezkuntza-proposamena osatzen du”.




## Hurbila



Umeen heziketa ez ezik, familiengandik hurbil egotea ere inportantea da Zuhazti haur-eskolarentzat. “Familia handia gara, eta hori da heziketa ona lortzeko gakoetako bat. Familien konpromiso eta laguntza barik ez genituzke helburuak lortuko. Familia askoren parte garrantzitsua garelara sentitzen dugu, etapa erabakigarri batean laguntza ematen diegulako eta euren seme-alaben garapenerako oinarri sendoak ezartzen ditugu eta”. Era berean, zutabe garrantzitsua dira, familiek lana

eta umeen hazkuntza uztartu ahal izateko. “Ordutegi malgua –07:30etik 18:30era– eta zerbitzu egokituak eskaintzen ditugu. Jantoki-zerbitzua ere badugu, eta gurasoentzako tailerrak eta ekintzak antolatzen ditugu. Bestalde, gure kokapen estrategikoari esker, Txorierriko familiengana zabaldu dezakegu zerbitzua, tokiko komunitatearen ongizateari ekarpena eginez”.

Prezio merke eta oso lehiakorak dituzte, eta, ondorioz, kalitateko hezkuntza ipintzen dute familia guztien eskura. Halaber, Eusko Jaurlaritzak homologatutako zentroa denez, familiak baliatu ahal dira umeen hezkuntzara zuzendutako dirulaguntzez. “Harro gaudene gune hau sortu izanaz. Bertan, umeek diren moduan jokatu dezakete, hazi daitezke, eta maitasunez eta errespetuz inguratutik garatzen dute euren burua. Bitartean, familiei laguntzen diegu lan-bizitza eta bizitza pertsonala uztartzen”.



### Zuhazti haur eskola

Ibaizabal Bidea 107 eraikina  
Parke Teknologikoa  
Zamudio


94 466 26 00  
alesvaya@hotmail.com  
www.guarderiazamudio.com



# Bizitzaz betetako hilerria

**FELIX FRAILE**  
Argazkilaria

*Fauna del cementerio de Bilbao* liburua argitaratu berri du Bilboko hilerriak. Liburuan batutako animalien artean daude hegaztiak, intsektuak, moluskuak eta anfioak. Animalia bakoitzaren ezaugarri morfologikoak eta ohiturak azaldu dituzte liburuan, eta argazki ederrez apaindu. Felix Fraile Parte derioztarrak egin ditu irudiak. Agerian utzi duenez, bizirik dago hilerria.



T ITXASO MARINA ANER MENTXAKA

**L**iburua egiteko ideia Frailek izan zuen. “Izugarri gustatzen zait hegazkinei argazkiak egitea, eta askotan hurbiltzen naiz Bilboko hilerri argazkiak egitera. Egun batean, zuzendariak kontatu zidan landaretzari buruzko liburua argitaratuta zutela, eta nik proposatu nion faunaren gainekoa ere egitea. Izan ere, uste baino animalia gehiago ikusi daitezke hilerrian, eta, gainera, banituen argazki batzuk aterata. Materiala batzen jarraitu nuen, eta liburu bat osatzeko nahiko argazki zegoela ikusita onartu zuten proiektua”.

Liburuan 100 argazki inguru batu dira, baina Frailek askoz gehiago atera ditu. “Urtebeteko lana izan da, eta ezingo nuke esan guztira zenbat argaz-

ki egin dudana. Ordu eta egun asko izan dira, eta horiek ere ezingo nituzke zenbatu”. Hilarri eta gurutze artean ibili da bizitzaren bila, eta hilerriko belardietan eta urmalean ere topatu du fauna. Beti isilean, zarata egin gabe, animaliak ez uxatzeko. Eginkizuna patxadaz ere hartu behar izan du, eta presa barik egon da zain, harik eta suertea aldekoa izan, eta momentu perfektua kameraren teleobjektiboarekin harrapatu duen arte.

Itxaronaldian, hilerrian ikustea espero ez zuen animaliekin egin du topo, adibidez, mokozabal arruntarekin eta tximeleta carderarekin. Eguneroko zereginetan ere harrapatu ditu batzuk, esaterako, bazkaltzen zebilen sugandila edo kopulatzen zebiltzan tximeletak.

Egun batzuetan esku hutsik itzuli da etxera, baina beste batzuetan sorpresa atsegina hartu du, jakin barik animalia berria fotografiatu zuela ordenadorean ikusita. “Okil handiari argazkia ateratzea kostatu zait gehien. Izan ere, oso hegazti zaputza da, eta norbait dagoe-la sumatu bezain laster alde egiten du. Nik banekien gutxi gorabehera nondik zebilen, eta egun batzuk eman behar izan nituen bere atzetik”.

## ARGAZKILARIA

Fraile pozik baino pozago azaldu da *Fauna del cementerio de Bilbao* liburua eskuan duela. Zerbaitegatik da bere argazkiak liburu batean argitaratzen dituzten lehen aldia. Duela urte batzuk




erretiroa hartu zuela, orain traba barik gozatu dezake bere zaletasun handia: argazkilaritza. “Lehen argazki-kamera 1980an erosi nuen. Izugarri gustatzen zitzaidan, eta gustatzen zait, faunari buruzko argazkiak egitea. Gero hasi nintzen familiari egiten, bidaietan ateratzen... Eta Deriora ezkondu nintzeanean –Portugaletekoa naiz–, ikaratuta gelditu nintzen hegazkinekin eta *spotting* munduan –hegazkinei argazkiak egitea– sartu nintzen. Batez ere Bilboko eta Madrilgo aireportuetan hartzen ditut irudiak, eta erakustaldiren batera ere joan izan naiz”.

**Okil handiari argazkia ateratzea kostatu zait gehien. Izan ere, oso hegazti zaputza da, eta norbait dagoela sumatu bezain laster alde egiten du.**

DAT Derioko argazkilaritza-taldearen kidea izateaz gainera, IZAE Zamudioko argazkilaritza-taldearen partaidea ere bada. Eta, jakina, Euskadiko Spotters taldearen kidea. Kontatu digunez, argazki ederrak egiteko aukera topatu du bisitatu dituen herrialde guztietan, eta gustatuko litzaioke Islandiara joatea bertako ur-jauziak fotografiatzera. “Baina argazkia egitea ez da klik egitea eta listo. Enkoadraketa, argia... hartu behar dira kontuan, eta zure bidaiari-lagunei argazkilaritza zuri bezainbeste gustatzen ez bazaie, akabo! Batzuetan hobe da bakarrik joatea (kar-kar)”.



Zozoa



Vanessa cardui tximeleta

**ADARVE KAFETEGIA**

Gosariak  
Plater konbinatuak  
Pintxoak  
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO      Tel: 94 608 95 31

**PATXI KOOP**

PIADI KOOPERATIBA ELKARTEA  
Nondar zalduna • Euzume 4, 40170 Zaldubi (Derio) • Tel: 944 522 567 • info@paxi.koop • www.paxi.koop

**SQUAT TRAINING CENTER**

ENTRENAMENTSU PERTSONALA • LESIOAK • OPOSIZIOAK  
ONLINEKO JARRAIPENA • KIROL ERRENDIMENDUA


Urkiola 4, Derio • squattrainingcenter.es • 686 917 409

## Alerta seinaleak: gure seme-alaben osasun mentala ulertzen

**G**ure seme-alaben osasun mentala gai medikoa baino gehiago da: ulermen, maitasun eta laguntza bidaia bat da. Duela gutxi, Osakidetzak azaroaren 28an eta 29an egindako jardunaldietan, Bizkaiko gazteen osasun mentalari buruzko txosten bat argitaratu da. **Txosten horretan nabarmendu da urtero 13.000 adingabek baino gehiagok jasotzen dutela Osakidetzako osasun mentaleko zentroetan arreta.** Zifra horrek, batetik arazo bat dagoela adierazten digu, eta, bestetik, gero eta kontzientzia gehiago daukagula ongizate emozionala zaintzeko.

Txorierrin, datuak argigarriak dira. 2024 urtea amaitu barik, Mankomunitateko Esku-hartze Psikologikoko Zerbitzuak (SIP) 65 espediente dauzka irekita, eta 19 kasu daude itxaron-zerrendan. Horrek agerian uzten du eskualdeko ume eta nerabeentzako laguntza psikologikoaren beharra gero eta handiagoa dela. Gainera, Mankomunitateko familia-hezitzaileak zailtasun-egoeran dauden 183 kasurekin lan egiten ari dira urte honetan zehar.

Adituek, aita eta ama guztiek ezagutu beharreko eredu kezkarriak identifikatu dituzte. Nerabeen artean, sintomarik



ohikoenak antsietatea eta depresioa dira, baina badira gure berehalako arreta eskatzen dituzten seinale konplexuagoak, hala nola gizarte-isolamendua eta eskola jazarpena.

Txikienetan, hizkuntzaren atzerapenak eta komunikatzeko zailtasunak izan daitezke lehen zantzuak adibidez, Espekto Autistaren Nahasmendua (TEA); kasu horretan detekzio goiztiarra funtsezkoa da.

Pandemiak areagotu egin ditu erronka horiek. Gaur inoiz baino gehiago, gertu egon behar dugu, behatu eta entzun. Osakidetzak, txostenean azaltzen duen bezala, tratamendua eskaintzeaz gain, laguntza-eredu bat eskaintzen du, honako hauek barne hartzen dituena:

- Osasun mentaleko 5 zentro espezifiko
- Nerabeentzako eguneko ospitalea
- Unitate terapeutiko espezializatuak
- Arreta pertsonalizatua, baita etxeko ere, beharrezkoa denean

Albiste ona da badagoela itxaropena. Euskadiko Osasun Mentaleko 2023-2028 Estrategiak bide argia markatzen du: prebenitzea, garaiz detektatzea eta laguntzea, estigmatik eta aurreiritzirik gabe.

Guraso gisa, adi egotea, konfiantzazko espazioak sortzea eta laguntza profesionala bilatzeko beldurrik ez izatea da helburua. Osasun mentala ez da ahultasun bat, seme-alaben garapeneren funtsezko zatia da.

Prest zaude ulertzeko eta laguntzeko?

### TXORIERRIKO BERBAK

## Mahaiaren bueltakoak

**E**uskaldunok ondo jateko ospea dugu; gauza gozoak ahoratzen ditugu, eta konpainia ederrean gainera: lagunak, lankideak, familiakoak...

Urte amaieran garrantzi berezia hartzen dute mahaiaren bueltako ospakizunek: enpresako *kopauak*, mokaduak edo lunchak egiten ditugu, ohikoa izaten da aspaldiko lagunekin *afari-meriendaren* bat egitea, Gabon gaua eta Eguberri eguna familia giroan ematen dugu sutean, eta handik hona ibiltzen gara Urtezahar-Urteberri egunetan, Errege egunetan...

Horrelako kontuak aipatzeko orduan, ulergaitzak direlakoan, sarritan, gure hitzak baztertu ohi ditugu eta globalizatu-

tako berba grisak darabiltzagu. Gainera, kolorerik gabeko hizkera lau horretan, askotan, erregistro bakarra dugu. Berdin-berdin egiten dugu lagunartean zein hizketaldi jasoetan. Eta, gauza jakina da, erreminta batek gauza guztietarako balio duenean... erne ibili!

Adibidez, erregistroaren arabera, jatekoa gozo egon dela adierazteko modu asko darabiltzagu gaztelaniaz: *delicioso*, *exquisito*, *excelente*, *de rechupete*, *buenísimo*... Euskaraz, batzuetan, besterik ez balego bezala, forma bakarra izaten dugu ahotan: oso gozo. Baina, hamaika aukera ditugu: *bikaina*, *aparta*, *on-ona*, *ikaragarri gozoa*, *izugarri gozoa*, *gozo-gozoa* edo

*goxo-goxoa*, *gozo baino gozoagoa*... Goza dezagun, ba, esateko modu horiekin.

*Jatunak* eta *tripontziak* dira gure arteko batzuk; beste batzuk, berriz, *jakanak*, *mizkinak* eta *jan gutxikoak*. Familia zabaletan beti dago *mokofin* edo *mokozuriren* bat; beste batzuk, osterara, edozerekin konformatzen dira.

Bakailaoaz gain, etxe askotan *artxo*a (arkumea) edo *auma* (antxumea) prestatuko dute, bertaratutakoaren gozagarri. Beste mahai batzuetan ez dira faltako intxaur-saltsa, konpota, sagar-erreak eta karakolak. Menu gutxitan ikusiko ditugu gatzatua eta odolostea, baina, nork daki, bakoitzak bere gustuak dauzka-eta.



## Gabonetan ez ahaztu zutaz

**G**abonak gerturatzen ari dira, eta pertsona askorentzat, aspaldi ikusten ez ditugun familiarateko bazkariak, jaiak, lan-afariak, ekitaldiak, bilerak eta lagunentzako topaketak esan nahi dute. Gabonak, batzuentzat, estresaren sinonimoa dira, hainbat faktorerengatik, garrantzitsuenetako bat: garai honetako presio soziala. Izan ere, garai honen inguruko hainbat itxaropen sortu dira, eta badi-rudi abendua iristen den bakoitzean bete behar ditugula. Beraz, gabonak ez lirateke estresaren eta antsietatearen sinonimo izan behar. Hori ez pasatzeko, gomendio batzuk:

### 1. Plangintza gakoa da

Amamarentzat oparia erostea ahaztu duzula edo Gabon afaria aurrean ez izango dela konturatzea baino gauza okerragorik ez dago; hartu arnasa sakon eta planifikatu alde aurretik. Egin zereginen eta oparien zerrenda bat, eta markatu bakoitza egin ahala. Gainera, anfitrioi baxara, ez izan zalantzarik eta delegatu lanak senide eta lagunei. Elkarlana da denboraldiaren muina!

### 2. Mugak ezarri eta bete

Ez zara superhero bat, eta ondo dago ezetz esatea. Jaietarako gonbidapenen eta konpromiso sozialen artean itozten ari zarela sentitzen baduzu, ezarri muga errealistak. Ez zaitez errudun sentitu gonbidapen bati uko egiteagatik edo zeure buruarentzat denbora bat hartzeagatik. Zure ongizatea da garrantzitsua!

### 3. Zentzuzko aurrekontua

Ezarri oparietarako, dekorazioetarako eta otordu etarako aurrekontua. Ez sentitu ahal duzuna baino gehiago gastatzeko presioa. Gogoratu opari baten balioa ez dagoela beti haren prezioari lotuta.

### 4. Opari esanguratsuak, ez materialak

Batzuetan, oparirik onenak ez dira gauza ukigarriak. Beraz, esperientziak oparitu, hala nola kontzertu baterako sarrerak, etxeko afari bat edo spa egun bat. Opari horiek gogoangarriak izateaz gain, gainezka dagoen denda batean opari perfektua aurkitzeko presioa ere saihesten dute.

### 5. Eskaini denbora zure buruari

Jaietako zalapartaren erdian, ezinbestekoa da erlaxatzeko eta energia karga-

tzeko uneak aurkitzea. Ziurtatu denbora ematen duzula zure burua zaintzen. Zeu zara zure oparirik onena!

### 6. Esker ona praktikatu

Falta den horretan zentratu beharrean, begiratu daukazunari. Esker ona praktikatzeko zure ikuspegia alda dezake eta estresa murriztu. Eman minutu batzuk egunero zure bizitzako gauza positiboak buruz hausnartzen. Ikusiko duzu nola aldatzen den zure jarrera!

### 7. Ikasi ezustekoei barre egiten

Ezer ez da beti planeatutakoaren arabera ateratzen, eta hori ondo dago. Jengibreko galletak erretzen badira edo gabonetako zuhaitza jausten bada, ez hartu dena hain serio. Egin barre hondamendi txikiei, eta gogoratu akatsek eragiten dutela jaiak bakarrak eta bereziak izatea.

Aurreitazko borondateen dokumentua  
egiteko tailerra

Fernando Pérez Viana  
Jesús García Garrastazu

Data eta talde desberdinak!

Informazioa jasotzeko deitu  
747.42.88.49 telefonora edo idatzi  
ekt@txorierri.eus helbidera!



T ITXASO MARINA © J MARTINA

**J MARTINA**  
Musika taldea

## “Musika elektronikoak eta popak aukera handiak ematen dituzte agitaziorako”

Aretoko biran murgilduta dagoela topatu dugu J Martina musika-taldea. Bartzelonan, Madrilen Oviedon eta Santiago de Compostelan jo ondoren, abendutik martxora bitartean Euskal Herriko aretoak beteko dituzte euren pop elektronikoz. Taldekideek eurek adierazi dutenez, gazte moduan bizitzea tokatu zaien krisialdiari lotutako egoerek eta ideiek definitu dute euren bigarren lanaren kontzeptua, *Negu Gorri* (2024): melankolia, haserrea, etsipena, baina baita esperantza, argia eta borrokarako grina ere. Horiek guztiak entzungai ipintzen dituzte agertoki gainean.

### **Z**elango harrera du J Martinak Euskal Herritik kanpo?

Egia esan, sorpresa izan da Euskal Herritik kanpoko kontzertuetan aurkitu dugun giroa, eta, talde bezala, etxetik kanpo ibiltzea ere polita izan da. Espero baino jende gehiago etorri da kontzertuetara, eta ez soilik euskaldun jendea. Konturatu gara gure musika euskaraz ez dakien jendeak ere entzuten duela, formalki musika gustatzen zaie-lako, edota gure diskurtsoa edo izaera

politizatuak erakartzen dituelako. Musika indar handia du hizkuntzaz haratago jendearengan gauza ezberdinak sortzeko, eta nahiz eta hasiera batean letrak ez ulertu, nahi duenak bilatuko du haien esanahia.

### **Hitzorduak etxean dituzue hurrengo hilabeteetan. Modu berezian bizi dituzue Euskal Herrian egiten dituzuen kontzertuak?**

Urduri eta gogotsu gaude kontzertu

horietarako. Zuzeneko berezi bat pres-tatu dugu, eszenografia berriarekin eta partaide gehiagorekin. Etxean egiten diren kontzertuak beti dira bereziak: publikoarekin sortzen den harremana oso polita izaten da, eta gustatzen zaigu horrelako aukerak aprobetxatzea, gure partetik ere zerbait berezia eskaintzeko.

### **Zeintzuk dira publikoarekin gehien konektatzen duten abestiak?**

Zuzenekoetan nabaritzen da bereziki

abesti batzuek publikoarengan duten indarra: *Gazte baten ametsak, Amore, Bilbo* eta *Negu Gorri*, baten bat aipatzearen. Zer esaten den eta nola esaten den arteko nahasketak indar handia hartzen du kanta horietan. Emozionalki edota politikoki sakonak diren gaiak aipatzen dira, eta esango genuke melodiek eragiten dutela mezuak era indartsuan sentitzea.

**Aipatzen zabilatzenez, izaera politikoko nabaria duen taldea zarete; sozialismotik oso hurbila. Ezinbestekoa da artistek, musikariek... jarrera hartzea?**

Oso garai nahasiak bizitzen ari gara, eta, gure ustez, gizarte osoak hartu behar du ardura, gertatzen ari denaren aurrean: salatuz, borrokatuz, antolatuz... Artistok eta musikariek ez gaude aparte, eta guk ere pentsatu beharko genuke inguruan gertatzen ari diren gauza guztiekin zein eratako harremana izan nahi dugun, eta batez ere izan daitezkeen alaketetan nola eragin.

**Nahiz eta kalterik ekarri?**

Ez dugu uste politikoki inplikatzek kalterik eragiten duenik. Agian, interes komertzialetan eragin dezake, baina, musikari bezala, indar eta zentzu handia eman diezaioke zure proiektuari. Jendearekin eta errealitatearekin konektatzeko gaitasuna ematen dizu, eta gure kasuan, oso motore garrantzitsua da bilaketa artistikorako.

## “Euskaraz ez dakitenek ere entzuten dute gure musika, formalki musika gustatzen zaielako, edota gure izaera politizatuak erakartzen dituelako”

**Azken lanean hitz egiten duzue faszismoaren goraldiari buruz, politika parlamentariak sortutako dezepzioari buruz... Musika-industria ere kritikatzeko duzue. Zaila dirudi musikaria izanda industria horretatik kanpo egotea erabat.**

Musika-industriaren motorra irabaziak dira; ez musika bera. Gaur egun, multinazionalak, banatzaileak eta enpresa handiek dute entzuten denaren eta musika-zirkuituen monopolioa. Eskala txikian ere gertatzen da: Euskal Herrian egiten diren makro jaialdiak eta ekitaldi handiak nork antolatzen dituen ikus-tea besterik ez dago, eta, gainera, zein baldintzatan. Ezin daiteke musikatik bakarrik eragin, arazoa globala delako. Baina gure esku ere badago zirkuitu komertzialetik kanpo dauden espazioak indartzea, hala nola gaztetxeak eta ekimen autogestionatuak, baita bes-

te logika baten baitan antolatzen diren kontzertuetan parte hartzea. Era berean, gure lana da zirkuitu komertzialean dauden dinamikak salatzea.

**Beraz, aldarrikatzeke tresnatzat duzue musika. Euskal Herrian, tradizioz, rocka, punka... erabili da aldarrikatzeke; zuek, berriz, musika elektronikora eta popera jo duzue.**

Guk ere asko edan eta edaten dugu punketik, rocketik eta beste estilo batzuetatik, baina konposatzerako orduan gehien gustatzen zaiguna da musika elektronikoaren munduan murgiltzea eta pop-doinuak egitea. Besterik gabe. Horrelako estiloak oso baztertuta egon dira musika politiko bezala, eta, gure iritziz, aukera handiak ematen dituzte agitaziorako.

**Momenturen batean edo bestean beldur izan zarete funtzionatuko ez ote zuen?**

Ez dugu ardura hori izan. Hasieran pentsatu genuen ez ote ginen arraroe-giak izango, baina ez zen kezka, pentsamendua baizik.


**Zein musika entzuten duzue?**

Hirurok musika asko eta oso ezberdina entzuten dugu, baina disko berrirako entzun ditugun artisten artean daude Angele, Shygirl, Ralphie Choo, Sen Senra, Toc eta Belako.

**Hiru urte pasatu dira Jaio naiz baina**


**ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA**

Santi Mami auzoa, 1  
Tel.: 94 454 10 06  
Faxa: 94 454 12 15  
48170 Zamudio (Bizkaia)

**SARRIKOLA OGITEGIA**

Euskal pastela  
Basemko ogia  
Bizkotxoak  
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu  
Tel.: 94 455 83 37  
619 78 58 84

Centro Dental  
**Txorierri**

**Rocio Astorkia Bordegaray**  
Col. nº 48000759

**Ainhoa Rodríguez Mella**  
Col. nº 48001337

**Igone Nieto Hernández**  
Col. nº 48001462

Mitxine 7. behea - 48150 Sondika  
(geltoki aurrean)  
Tfno. 944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885  
[www.cdtxorierri.es](http://www.cdtxorierri.es)

**ORTODONCIA21**



**diskotik (2021) *Negu Gorri* diskora arte. Badago alde handirik lan bien artean?**

Disko berria ez da aurrekoa bezain sintetikoa eta beteago dago soinu aldetik. Dantzagarriagoa ere bada, eta gehiago landu dugu produkzioari dagokionez. Hiru urtean, nola ez, gu ere aldatu gara. Konposaketa aldetik asko ikasi dugu, eta soinuen bilaketan ere anbizio gehiago izan dugu.

**Orain hirurek duzue pisu berbera ahots- eta instrumentu-arloan.**

Hasieran inertziatz hartu genuen forma aldatu nahi izan dugu: dj batek eta bi abeslariak osatutako taldea izan beharrean, banda elektronikoa izaterako jauzia egin nahi izan dugu, eta zuzeneko aberatsagoa egin.

**Konposatzerako orduan nahiko kaotikoak zaretela irakurri dugu.**

Bai. Ez dugu musika-ikasketarik egin, eta gehienetan intuizioz konposatzen

---

**“Gure esku ere badago zirkuitu komertzialetik kanpo dauden espazioak indartzea, hala nola gaztetxeak eta ekimen autogestionatuak”**

---

dugu. Denboraren poderioz asko ikasi dugu eta funtzionatzen duten moduak ere hartu ditugu, baina ez dugu inoiz oso era ordenatuan konposatzen.

**Ez dakigu gure gauza izango den, baina bertsolaritza-ukitua nabaria da abestietan.**

Baliteke. Musika tradizionalarekin eta bertsoekin harremana dugu betidanik,

eta horrek ere eragina du gure lanean. Disko berriaren lehen abestia, adibidez, Imanol Enbeitaren bertso batzuk dira. Oso zaharrak izan arren, gaur egungo garaiak deskribatu ditzakete.

**Kaosa, konposatzerakoan, baina oso estetika landua, bideoklipetan.**

Bideoklip bakoitzean saiatzen gara abestiari beste dimentsio bat ematen, esanahia indartzeko – *Paktua* abestian, esaterako – edo fikzio bidez beste mundu bat sortzeko – *Eskuburdin* kantan, adibidez –. Hainbat artistaren lana eta gure lana elkartzea gustatzen zaigu, eta zer gertatu daitekeen ikustea. Iru-ditegiarekin, sinboloekin, ironiarekin eta abarrekin jolasten gara: abestiaren zentzua zabaltzen da, eta, aldi berean, indartu.

**Zer etorriko da aretoko biraren ostean?**

Bada, printzipioz, kontzertuekin jarraituko dugu udaberrian.

## Umiltasunez

**A**ne eta Kattalin Barcena Larrazuko ahizpek eta Javier Jorajuria barañaindarrak osatzen dute J Martina musika-taldea. Kattalinek eta Javik Arte Ederretako fakultatean ezagutu zuten elkar, eta hirukoteari piztu zitzaion musika elektronikoarekin esperimintatzeko gogoia. “Inolako pretentsiorik gabe elkartu ginen soinuekin jolasteko”. Barañaingoa Bilbora etorri zen bizi izatera, eta, azaldu digutenez, bere etxea izan zen taldearen lehen «estudioa». Ondoren, Cortes kalean izan zuten, eta gaur egun, Errekalden. “Bertan entseatzeko dugu, eta konposatu”. Hori Bai gaztetxea ere izan dute sormen-lekutzat. “Dirurik eduki ezean, musikariok oso baliabide gutxi izaten ditugu gure musika sortzeko espazioei dagokienez. Hori Bai oso leku garrantzitsua da guretzat, atekak beti

izan ditugulako zabalik, entseguak eta grabazioak egiteko. Baina musika egiteko beren-beregi egokitutako lekua bilatu behar izan dugu. Hala ere, zuzeneko berriak prestatzeko, Hori Bai erabiltzen jarraitzeko asmoa dugu”.

J Martina oso momentu latzean irten zen musika-eszenara, pandemia-garaian hain zuzen. “Egia esan, nahiko lauso dugu garai hori. Indarrean zeuden baldintzetan musika egiten hastea oso gogorra izan zen, batez ere zuzenekoak. Kontzertuak berriro zutik ikusten hasi zirenean, oso inflexio-puntu garrantzitsua izan zen gure ibilbidean, eta jarraitzeko indar handia eman zigun”. Kalean bi lan dituztela –*Jaiotza* baina eta *Negu Gorri*– erreferente bihurtu dira Euskal Herriko musika-panoraman. “Esan moduan, inongo pretentsiorik gabe hasi ginen musika egiten, eta oso polita izan da

gure musika zabaldu dela ikustea. Horri lotuta, uste dugu jendeak ematen digun oihartzun horrek hein batean erantzukizuna ere badakarrela, eta beti saiatzen gara horrekiko arduraz jokatzeko”.

Azaldu duten moduan, J Martinak bi motore ditu: artearekiko konpromisoa eta inguruarekiko konpromisoa. “Sortzerakoan, beti saiatzen gara bi elementu horiek presente izaten. Gustatuko litzaziguke musika-arloan zerbait berezia egitea, eragingo duen zerbait, eragiteko forma berriak bilatzea... Beti ere umiltasunez”.

Aretoko birak hurrengo leku hauetara eramango dituzte datozen hilabeteetan: abenduak 21, Gasteiza (Jimmy Jazz); abenduak 27, Bilbora (Kafe Antzokia); urtarrilak 3, Donostiara (Dabadaba); otsailak 22, Azpeitira (San Agustin) eta martxoak 1, Atarrabira (Totem aretoa).

*Ekin eta ekin 35 urtez. Publikoa, irekia, guztiontzat.*



**TXORIERRIKO UDAL  
EVSKALTEGIA**



**Aza artean buzkantza,  
Gabonetan alegrantza,  
soldata eta bakantza.  
Urte Berriz esperantza.**

**Eupada bat eta eupada bi:  
berbetan euskara erabili.**

**B. Gandiaga**

# Gabonetako egitarauak

## Loiu

Abenduak 21, zapatua

09:45 (Lauroeta), 10:00 (Zabaloetxe) eta 10:15 (Larrondo) Irteera **BE**Ceko **Umeen Gabonetako Parkera**

Abenduak 22, domeka

**Rapunzel antzezlana**, udaletxeko plazan

Abenduak 23, astelehena

09:30-13:30 **Campus multikirolak**

12:00 (Larrondo), 16:30 (Lauroeta) eta 18:00 (Zabaloetxe) **Olentzeroren eta Mari Domingiren kalejira**

Abenduak 26, eguena

09:30-13:30 **Campus multikirolak**

Abenduak 27, barikua

**Ohe elastikoak**, udaletxeko plazan

**Gabonetako azoka**, udaletxeko plazan

09:30-13:30 **Campus multikirolak**

12:00-14:00 eta 17:00-20:00 **Izotz-pista**, udaletxeko plazan

Abenduak 28, zapatua

**Ohe elastikoak**, udaletxeko plazan

**Gabonetako azoka**, udaletxeko plazan

12:00-14:00 eta 17:00-20:00 **Izotz-pista**, udaletxeko plazan

18:00 **San Silvestre lasterketa**

19:00 **Deabru Beltzak**

20:00 **Rocktronics** taldearen kontzertua

Abenduak 29, domeka

**Ohe elastikoak**, udaletxeko plazan

**Gabonetako azoka**, udaletxeko plazan

12:00-14:00 eta 17:00-20:00 **Izotz-pista**, udaletxeko plazan

12:30 **Gabonetako kantak**, jubilatuen omenez. San Pedro elizan

14:00 **Bilbotxeros**

Abenduak 30, astelehena

09:30-13:30 **Loiu Christmas Camp**

12:00-14:00 eta 17:00-20:00 **Izotz-pista**, udaletxeko plazan

**Gabonetako azoka**, udaletxeko plazan

Abenduak 31, martitzena

09:30-13:30 **Loiu Christmas Camp**

11:00 **Akarlandara igotzea**

12:00-14:00 eta 17:00-20:00 **Izotz-pista**, udaletxeko plazan

13:30 **Joxepa Kale Kale**

18:00 **Five Direction**, Batzokiaren inguruan

Urtarrilak 1, eguaztena

12:00-14:00 eta 17:00-20:00 **Izotz-pista**, udaletxeko plazan

Urtarrilak 2, eguena

09:30-13:30 **Loiu Christmas Camp**

11:00-13:00 eta 17:00-20:00 **Gabonetako Umeen Parkea**, Larrondon



**IBARRONDO**  
FISIOTERAPIA  
JARRERA-BERREZIKETA  
ESKU-TERAPIA

MITXINE, 3  
48150 SONDIKA  
Tel. 94 453 92 00  
Mugikorra 617 674 202  
Mugikorra 688 601 871  
fisiobarrondo@gmail.com

**LA GUN KOR**

AHOIKULARITZA FISKALA LABORALA KONTABLEA  
ZERBITZU BULEGOA

Aretxalde, 68 - Lezama  
944 556 538 - 607 209 343  
lagunkor@lagunkor.com  
www.aseosorialagunkor.com



**GURE ETXEA**

Hanburesak - Anoak -  
Plater konbinatuak -  
Ogitartekoak - Sandwichak  
Luntzak, paellak... enkarguz

Lehendakari Agirre 4 LARRABETZU 944 558 087



## GABONETAKO EGITARAUAK

12:00-14:00 eta 17:00-20:00  
**Izotz-pista**, udaletxeko plazan

Urtarrilak 3, barikua

09:30-13:30 **Loiu Christmas Camp**

12:00-14:00 eta 17:00-20:00  
**Izotz-pista**, udaletxeko plazan

17:30-20:30 **Erregeek gutunak jasotzea eta umeak agurtzea**, Abadetxe kalean

Urtarrilak 4, zapatua

**Txulalai taldearen ikuskizuna**, Larrondon

12:00-14:00 eta 17:00-20:00  
**Izotz-pista**, udaletxeko plazan

## Larrabetzu

**Hori Baik antolatua**

Abenduak 22, domeka

21:00 Domekak Hori Baien; azken laurak: **Eñaut Elorrieta**

Abenduak 23, astelehena

15:30 **Olentzeroren bila**, plazan

Abenduak 24, martitzena

18:00 **Olentzero**, zerran

Abenduak 25, eguaztena

19:00 **Bertso-saioa: Alaia Martin, Andoni Egaña, Aissa Intxausti eta Igor Elortza**

**Dj Zatzaz**

Abenduak 29, domeka

19:00 Domekak Hori Baien: **Amaia Miranda**

Abenduak 31, martitzena

**Kotilioia**. Gaia: EITB!

Urtarrilak 2, eguena

**Laburmetraia-rallya**

Urtarrilak 3, barikua

**Laburmetraia-rallya**

**Puzgarriak frontoian**  
Udalak antolatua

19.00 **Bi baserri** laburmetraia

Urtarrilak 4, zapatua

**Laburmetraia-rallya**

09:30 **Auzoz auzo**

Urtarrilak 5, domeka

**Laburmetraia-rallya**

21:00 **Antierrege Eguna**, gazteen afaria

Urtarrilak 6, astelehena

18:00 **Umeentzako pelikula**

Urtarrilak 10, barikua

20:00 **Unidad Alavesa, Mixerabliak eta Fitoskins**

Urtarrilak 11, zapatua

**Bilbora**

## Sondika

Abenduak 21, zapatua

17:00 **Opari tailerra**, Museti Jositegian. Gaztetxeak antolatua

20:00 **A Capella Christmas** ikuskizuna, Sondikako Kultur Etxean

Abenduak 22, domeka

17:00 **Joko dinamikoak eta erronkak**, Gaztetxean

Abenduak 23, astelehena

11:00 **Gabonetako argiak**, Ludoteka Txikin

**ed**  
*electricidad derio elektrizitatea*  
Koadro elektrikoak • Instalazioak • Mantentzea  
*Proiektuak eta material elektrikoaren salmenta*  
Ugaldeguren ind. 1, 5 pab. 12 B DERIO  
t: 944 543 148

**Amara**  
ileapaindegia  
Asteartea-ostiralea:  
9:00-19:00  
Laburubata:  
8:00-13:30  
Urbe plaza, 1 behea  
Zamudio  
944 520 419

**FRUTAK**  
C/Gaztelamendi 3 Larrin  
48195 - LARRABETZU  
Bizkaia  
Tfn: 94 455 89 19  
halarretalok@gmail.com

**BARAZKIAK**  
Bertako barazkiak eta azalduak  
Fruta garas eta kalitate  
Handikoa  
Elkagail freskoa egunero  
30 € bonoak opari

30€ko bonoak zozketatuko ditugu  
bezeroen artean

**ZAMUDIO**  
Loteria Nazionala  
Leizaola L. plaza, 7  
Tel.: 94 452 09 59  
loterias.zamudio@gmail.com

## GABONETAKO EGITARAUAK

11:00 **Eskulanak**, Ludoteka Gaztean

17:00 **Gaztetxef**: Gabonetako gailetak, Gaztetxean

Abenduak 24, martitzena

11:00 **Jolas librea**, Ludoteka Txikin

11:00 **Bingoa**, Ludoteka Gaztean

17:00 **Olentzeroren, Mari Domingiren eta Belen bizidunari desfilea**, udaletxetik

**Gaztainak eta txokolatea**

Abenduak 26, eguena

11:00 **Sukaldaritza tailerra**, Ludoteka Txikin

11:00 **Jolas librea**, Ludoteka Gaztean

17:00 **Irteera: The Rombo Code scape-rooma**. Gazteteak antolatua

Abenduak 27, barikua

11:00 **Oparia antzezlan**a, Ludoteka Txikin eta Ludoteka Gaztean

12:00-14:00 eta 17:00-20:30 **Txiki eta gazteentzako jolasak, puzgarriak eta jarduerak**, Gorondabeko kiroldegian

17:00 **Tailerra: Ispilu marrazkia**, Gazteteak

Abenduak 28, zapatua

12:00-14:00 eta 17:00-20:30 **Txiki eta gazteentzako jolasak, puzgarriak eta jarduerak**, Gorondabeko kiroldegian

17:00 **Tailerra: Errugabe-errugabe**, Gazteteak

Abenduak 29, domeka

17:00 **Jokua: La ruleta de la suerte**, Gazteteak

Abenduak 30, astelehena

11:00 **Zuhaitz pertsonala**, Ludoteka Txikin

11:00 **Sukaldaritza tailerra**, Ludoteka Gaztean

17:00 **Gaztetxef**: Gabonetako zuhaitz hostopila, Gazteteak

Abenduak 31, martitzena

11:00 **Jolas librea**, Ludoteka Txikin

11:00 **'Agur 2024' festa**, Ludoteka Gaztean

17:00 **Gabon Zaharreko festa**, Gazteteak

Urtarrilak 2, eguena

**Gabonetako merkatua**, saltokien eta tabernen kanpoaldean

11:00 **'Abestia jarraitu' jolasa**, Ludoteka Txikin.

11:00 **Jolas librea**, Ludoteka Gaztean

17:00-19:00 **Umeentzako ekintzak eta tailerrak**, Gabonetako merkatuan

17:00 **Irteera: Zero Lantecy-Laser**. Gazteteak antolatua

Urtarrilak 3, barikua

11:00 **Gabonetako urteko gaia**, Ludoteka Txikin

11:00 **Merendola eta dj-a**, Ludoteka Gaztean

17:00 **Tailerra: Marrazki fractal**, Gazteteak

Urtarrilak 4, zapatua

17:00 **Tattoo tailerra**, gazteteak

Urtarrilak 5, domeka

17:00 **Errege Magoak**, Gazteteak

18:00 **Erregeen kabalgata**, aireportutik



## GABONETAKO EGITARAUAK

### Derio

Abenduak 20, barikua

18:30 **Miragarri taldearen erakustaldia**, kiroldegian

Abenduak 22, domeka

07:30 **Durakogainera irteera**, Nagusien Etxean. Untza mendi-taldeak antolatua

18:30 **Txixxarri**lloa, Nagusien Etxean

Abenduak 24, martitzena

11:00-14:00 eta 18:30-20:00 **Olentzero eta Mari Domingi**, herrian zehar eta harrera

17:00 **Kalejira**, Larrabari baserritik

**Harrera**, Herriko Plazan

Abenduak 26, eguena

19:00 Fernando Lorenzoren **Derio en el corazón** liburuaren aurkezpena, Kultur Birikan

Abenduak 27, domeka

18:00 **Nagusien jaia eta omenaldia 1939an jaiotakoei**, Kultur Birikan (3 euro)

Abenduak 30, astelehena

18:30 **Piraten istorio bat**, umeentzako antzerkia, Gurea Aretoan (3 euro).

Urtarrilak 2, eguena

10:30-14:00 eta 16:30-20:00 **Izotz-pista**, frontoi ondoan (3 euro)

Urtarrilak 3, barikua

10:30-14:00 eta 16:30-20:00 **Izotz-pista**, frontoi ondoan (3 euro)

19:00 **Okupame antzezlan**a, Gurea Aretoan (3 euro)

Urtarrilak 4, zapatua

10:30-14:00 eta 16:30-20:00 **Izotz-pista**, frontoi ondoan (3 euro)

11:30 eta 17:30 **Nomada antzezlan**a, urte batetik lau urtera bitarteko umeentzat, Kultur Birikan

18:00 **Lainomendi dantza-taldearen erakustaldia**, kiroldegian

Urtarrilak 5, domeka

10:30-14:00 **Izotz-pista**, frontoi ondoan (3 euro)

18:30 **Errege Magoen ongietorria**, kantxa estalian

19:45 **Harrera**, Herriko Plazan

Urtarrilak 6, astelehena

16:30-20:00 **Izotz-pista**, frontoi ondoan (3 euro)

Urtarrilak 11, zapatua

17:00-20:00 **Derio Olgetan**, frontoi ondoan

Urtarrilak 12, domeka

17:00-20:00 **Derio Olgetan**, frontoi ondoan

Urtarrilak 17, barikua

19:30 **IV. Kirol Gala**, Kultur Birikan

Urtarrilak 18, zapatua

17:00-20:00 **Derio Olgetan**, frontoi ondoan

Urtarrilak 19, domeka

17:00-20:00 **Derio Olgetan**, frontoi ondoan

### Lezama

Abenduak 23, astelehena

09:30 **KNS Aventura Parkera irteera**. Gaztegunek antolatua



**Goiri'78 s.l.**  
Zerbitzu ofiziala



Txorierrri et., 46  
48150 Sondika  
Bizkaia

94 453 25 15  
94 453 39 31



**aldekone**  
hortz klinika  
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar  
Odontologoa

–Especialitate guztiak zentro bakar batean  
–Aurrekontua doan  
–Especialitatea: umeak

Urtebe 7, behea  
48160 DERIO (Bizkaia)



**No-afaindegia**  
M<sup>a</sup> Antonia Llodio  
TXPI

Txorierrriko etorbidea, 6  
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



**RADIO TAXI FEMADE**  
Zure taxi, Teorierikoa

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu

24h 94 480 09 09

ERRESERBAK:  
[www.taxisaeropuertobilbao.com](http://www.taxisaeropuertobilbao.com)



**DESKARGATU APP-A**  
**TAXI FEMADE**



**yedra floristas**

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia  
Telefona: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

## GABONETAKO EGITARAUAK

Abenduak 24, martitzena

17:00 **Olentzero eta Mari Domingi kalejira**. Ekidazu abesbatzaren musika-emanaldia, umeentzako dantzak Kurutze dantza-taldearekin, gaztaina erreak, freskagarriak, gozokiak eta opariak banatzea

Abenduak 26, eguena

**Crumbl cookies tailerra**, Goitioltzako txokoan. Gaztegunek antolatua

Abenduak 27, barikua

10:00 **Bizkaia Park Abenturara irteera**. Ludotekak antolatua

Abenduak 30, astelehena

10:00 **KNS Aventura Parkera irteera**. Gaztegunek antolatua

Urtarrilak 2, eguena

11:30-13:30 eta 16:30-20:30 **Umeen Gabonetako Parkea**, frontoian

Urtarrilak 3, barikua

11:30-13:30 eta 16:30-20:30 **Umeen Gabonetako Parkea**, frontoian

## Zamudio

Abenduak 23, astelehena

11:00 **BECera irteera**, Gaztestaziotik

18:30 **Olentzeroren eta Mari Domingiren kalejira entseatzea**, Kultura Etxeko gimnasioan

Abenduak 24, martitzena

10:00 **Baserrietatik abestea**

12:30 **Gabon-kantak herrigunetik**

13:30 **Talo-tailerra**, Kultura Etxean

16:00 **Galtzagorriek Olentzeroren eta Mari Domingiren kondaira kontatzea**, Kultura Etxean

16:30 **Olentzeroren eta Mari Domingiren bila joatea eta dantza- eta kantu-kalejira**

18:00 **Olentzero eta Mari Domingiri gutuna ematea eta txokolatada**

Abenduak 26, eguena

**Jump Yard Deriora irteera**. Gaztestaziotik

09:30etik aurrera **Gabonlekuak** Kultura Etxean

Abenduak 27, barikua

09:00 **Big Karting Vitoriara irteera**, Zamudio Racing Elkarteak antolatua

09:30etik aurrera **Gabonlekuak**, Kultura Etxean

Abenduak 28, zapatua

**Inuzente Eguna**, Gaztestazioan

Abenduak 29, domeka

18:30 **Filma**, Gaztestazioan

Abenduak 30, astelehena

08:00 **Mendi-irteera**, Gaztestaziotik

09:30etik aurrera **Gabonlekuak**, Kultura Etxean

Abenduak 31, martitzena

**Gabon Zaharreko autobusa**, Gaztestaziotik

Urtarrilak 2, eguena

09:30etik aurrera **Gabonlekuak**, Kultura Etxean

Urtarrilak 3, barikua

09:30etik aurrera **Gabonlekuak**, Kultura Etxean



**Baserritarren Alkartea  
Lezama S. Coop.**

Aretxalde, 21 BIS  
48196 LEZAMA  
☎ 94 455 60 16  
e-mail: lezama@fcae.org  
Bazkideak: 144

*Pentsu  
naturalak*



Gorde erosketa-tiketa.



*Gabonetan*

**EZ IZAN  
TXORIBURU**

Kontsumitu buruarekin  
Eta zalantzarik baduzu,

[kontsumobide.eus](https://kontsumobide.eus)



#KontsumitzenJakín





NAGORE LOPATEGUI ESCALLADA Emaús Gizarte Fundazioa

## EMAUS

# Artea eta aniztasuna, Derioko Nomada Jaialdian

**A**zaroaren 13tik 15era bitartean, Derio sormenaren eta topaketa komunitarioaren epizentroa izan zen, bertan Emaús Gizarte Fundazioak bultzatutako Nomada Jaialdiaren bigarren edizioa egin zen eta. Egitasmoaren helburua da agerian uztea kulturak elkartzeko eta eraldatzeko duen ahalmena, eta gure udalerriko kaleak bizitzaz betetzeaz gainera, aldi berean zabaldu zen Irunera, Arrasatera eta Errenteriarra.

Derion, zehatz-mehatz, era askotako ekintzak egin ziren, hala nola

collage-tailerrak, itzal-antzerkia, laburmetraiak, podcasten lehiaketak eta txotxongilo-erakusketak. Ekintzak doakoak izan ziren, eta publiko orokorrarentzat. Hamar kultura-eragilek indarrak batu zituzten ekintzak dinamizatuz, eta saioetan hainbat adin-tarte, kultura eta jatorritako pertsonak hartu zuten parte. Tokiko komunitateak paper nagusia izan zuen hitzorduan; hortaz, nabarmentzekoa da hurrengo hauen parte-hartzea: Emaús, Nagusien Etxea, Politeknika Txorierri, Derioko eskola, Mañarikua, APNABI Autismo

Bizkaia, Lantegi Batuak eta, azkenik, Euskal Herriko Unibertsitatea, elkarlanean ibili baita zenbait prozesu artistiko sortzeko.

Hiru egunean, aniztasuna ospatu zuen esperientzia bizi izan genuen Derion. Era berean, jaialdia lagungarria izan da komunitate parte-hartzaileagoa, inklusiboagoa eta eraldatzaileagoa eraikitzeko. Nomada Jaialdiak mezu argia helarazi zigun: irudimenaren eta artearen bidez amets egin dezakegu, eta pertsona guztientzako etorkizun hobea eraiki. Hurrengo edizioetan zuen zain izango gara!

LEIRE BEGOÑA

ULE-APAINDEGIA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20  
48160 DERIO  
94 454 26 32

Jarrai izagatu Facebook-en

Familia osorako  
kalitatezko arreta,  
zure esku

Zerbitzu Berriak  
Logopedia  
Podologia  
Krimasajak

clínica dental  
**ZAINDUZ**  
hortz klinika

Txorierri etorbidea, 9 - Lojia | Arteaga eraikina | 48160 DERIO  
94 454 01 01 | 857 79 54 45  
info@dentalzainduz.com | www.dentalzainduz.com

**auzoKide**  
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisolo 4, beheka B  
48150 SONDIKA

634 410 470  
auzokidefincas@gmail.com

## SORLEKUA



## "Koloretako ametsak"

**H**iru urte-edo nituela hasi nintzen nire inguruko xuxurla gero eta ozenago entzuten: "Angelman sindromea dauka". Eta hitzez ezin nuen arren, niri ezizena jartzten tematuta zebiltzan munduari esan behar izan nion izena banuela, eta, gainera, eder askoa zela: Maddi Torregrosa Lauzirika. Orain 22 urte ditut, eta motxila, bizipenez, malkoz eta barre-algaraz beteta. Baina batez ere maitasunez eta

artez gainezka daukat bihotza. Neguaren atarian gaude, eta barruan epel-epelatan egon gurako genukeen arren, bizia dugu aurretik! Eta euritik babesteko, kolorez, artzez eta maitasunez beteriko aterki hau baino hoberik ez dago.

Kotoizko eta poliesterezkoa da, eta oihalerako pintura erabili dut diseinua egiteko. Arte-eskola Nahiarten jasotzen dut, desgaitasun psikikoa edo intelektuala duten pertsonentzako sortze-gunean.



**Maddi Torregrosa**  
@ maddi\_artista

**ArtileArtean**  
Mungialde, 4 - DERIO  
946 240 343 / 665 702 751  
www.artileartean.com

**Torrealday**  
ZURE FINANTZA-OBASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA  
ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA

**ELORRIETA**  
INSTALACIONES ELÉCTRICAS  
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA  
INSTALAZIOAK, MANTENTZE-LANAK,  
KONPONKETAK...  
MATERIAL ELEKTRIKOA SALGAI  
info@elorrietainstalaciones.com 639 582 547  
Uribe kalea 12 behea · Derio 944 540 386



2 Bunkerra



4 Bunkerra

T O IÑAKI OLABARRIETA - JOSE ANGEL MENTXAKA

## MENDITIK PATXADAZ

# P lerroko bunkerrak Nafarroan (I)

Oraingo honetan apur bat urrunago joango gara, Nafarroako Pirinioko mendietara, hain zuzen. Bertan, mendi, herri eta paraje ederrez gain, badaude historiako elementu ez hain ezagunak: P lerroko bunkerrak. Eta zer da edo zen, P lerroa? 1939an, gerra amaitu berritan, Francoren erregimena, Europatik etor zitekeen eraso baten beldur, lerro defentsibo handi bat eraikitzen hasi zen, Pirinio osoa bunkerrez josiz. Urteetan abandonatuta eta erdi estalita egon ondoren, garbiketa lanek asko jarri dituzte erakusgai.

**I**noiz Nafarroako Pirinioetara joaten bazarete, bunker hauetako bakar batzuk bisitatzea proposatzen dizuegu. Bilatzaile batean "P lerroko mapa" jarriz gero eta webgunera sartuta, milaka agertuko zaizkizue, bakoitzaren posizioarekin eta argazkiarekin. Gogoratu behar da Artxanda, Gorniz zein Luzue-roko puntako antiaereo eta bunkerrak ere antzeko asmoekin egin zituztela, erasoak itsasoz etor zitekeen beldur.

**Ibañeta inguruko bunker batzuk:** Auritz / Burgete eta Orreaga atzean utzi, eta Ibañeta gainean, ermitaren atzean, aparkatu dugu. Oinez hasi gara. Lehen bunkerra (1) bertan dago, bigarrena (2), berrehun metro ingurura. Horiek aztertu ondoren, Lepoeder eta Ortzantzurietara doan pista hartu, eta bide ondoan ikusiko ditugu beste hiru (3, 4 eta 5). Aurrera eginez, beti pistatik, kurba ebaki baten ondoan beste bi (6 eta 7) ikusiko ditugu.

Bata ia osorik estalita dago, baina bestea ederra da eta osorik ikus daiteke. Pista beretik itzuli gara Ibañetara. Errepidea gurutzatu, eta aurrean dugun antena baterantz egin dugu. Heldu baino metro batzuk lehenago, apur bat basoan sartuta, beste bat dago (8).

Berriro Ibañetara itzuli gara eta Lindus eta Urepelera doan bidea hartu dugu orain; autoz egin daiteke azken zati hau. Kilometro pare bat egin ostean, bi bunker aurki daitezke. Bata argi ikusi dugu bide ondoan (9); bestera heltzeko, berriz, ehiztariantzako autokarabana antzeko bat hartu dugu erreferentziatzat. Ondotik igaro gara, eta metro batzuk aurrerago, basoan sartuta, aurkitu dugu. Ibañetara itzulita amaitu dugu 10 kilometroko ibilbide eder hau. Jakina, hemen bunker, antiaereo eta metrailadore-habi batzuk baino ez ditugu aipatu, baina asko daude, eta mapa baten laguntzaz edo lehen aipa-

tutako webgunearen laguntzaz aurkitzen saia gaitezke. Ez da lan erraza, zeren asko erdi edo osorik estalita daude.

Hemen gaudela ezin dugu ahaztu Ibañeta ondoan dagoen Orreaga gune garrantzitsua eta sinbolikoa dela, 778. urtean frankoei irabazitako batailagatik (frankoen herriak, Karlomagno buru zutenak, ez geroago etorri zen Franco). *La Chanson de Roland* poema epikoaren bidez Europa osoan egin zen ezagun. Orreagara hurbildu gara, eta Santutegi-ko eliza gotikoa bisitatu dugu: klaustroa, non Nafarroako erregea Antso VII.a *Azkarra* lurperatuta dagoen; museoa; XIII. mendeko Santiago eliza eta Karlo-magnoren siloa deitutakoa, non azken urteotan hainbat hezur atera eta aztertzen dabiltzan –ez enperadorearenak, jakina–. Ez ahaztu hori ere Done Jakue Bidearen lekurik garrantzitsuenetarikoa dela. Beraz, badago zer ikusi.





10 Bunkerra




11 Orreagako santutegia

## Ibilbidea

Distantzia: 9,3 km

Desnibel positiboa: 252 m

Eskuratu  
hemen  
ibilbidearen  
track-a



L. LEIZAOLA PLAZA 2 (ZAMUDIO)  
946 522 857

**OAKLAND**  
ENGLISH

**TABERNA GAZTEDEI**

@gazteditaberna\_lezama  
944 554 422 · Aretxalde 141 · LEZAMA

**sarraila-denda Txorierri**  
ADITUAK SARRAILAGINTZAN ETA SEGURITASUNEAN

946 038 663  
625 100 800  
info@cerrajeriatxorierri.com  
www.cerrajeriatxorierri.com

Alain Pomposo Zarate  
Urkiola, 4 Iorja  
48160 Derio



WIKIMEDIA / ANRO0002

@TXIRIBITA\_MUNDI

## HERBARIOA

# Berbena

*Verbena officinalis*. Landare belarkara da, berbenazeoen familiakoa. Ertz askoko zurtoina du, goialdean adarkatua dena eta aurkako hosto muxarratuak dituena. Oso hedatuta dago Europan, Asian eta Afrikan eta batez ere landa artean, etxe ondoan, leku harritsueta eta baratzeetan hazten da, betiere haizetik babestuta badaude.

**Z**onaldearen arabera, berbena udaberrian eta udan loratzen da. Sendabelar moduan erabiltzeko, erabat loratu baino lehen batu behar da. Itzalpean eta ondo aireztatuta dagoen leku batean sikatu behar da. Ondoren, flasko hermetiko txikietan gorde behar da.

## PROPIETATE SENDAGARRIAK

Landare antiseptikoa eta arazgarria da, eta bere propietateen artean nabarmendu daiteke lasaigarria, erreuma-kontrakoa eta analgesikoa dela.

## BARNE-ERABILERA SENDAGARRIAK

Oso landare gomendagarria da arnas sistemako arazoak eta hainbat min arintzeko. Hala ere, infusioa neurritz edan behar da beti, eta ezin da tratamendu luzerik egin; gehienez 3-6 egun iraun behar du. Kanpo-erabilerak gomendagarriagoak dira.

- Buruko min handia izanez gero, infusioa edan daiteke. Era berean, berbena-alkohola erabilita, igurtziak egin daitezke kopeteen eta lokietan.

- Bronkitis-kasuetan, infusioa hartu daiteke, edo bularrean edo bizkarrean enplastuak ipini. Nolanahi ere, enplastuak bakarrik hiru egunez ipini ahalko dira.
- Barne-infekzioetarako ere edan daiteke infusioa.
- Hainbat min arintzen ditu; hala nola, hilekoaren mina, menopausiari lotutako minak, giharretako minak, lunbagoa eta bihurrituak. Kasu horietan ere infusioa edan daiteke, edota ukendua edo konpresak ezarri.

**Infusioa:** koilaratxokada bat berbena erabili behar da ur-katilukada bakoitzean. Egunean bi katilukada edan daitezke. Nolanahi ere, aurreko lerroetan esan moduan, kontu handiz edan behar da eta ez da tratamendu luzerik egin behar. Kanpo-erabilerarako bada, berbena-kantitate gehiago bota daiteke, eta infusioa konzentratuagoa egin.

## KANPO-ERABILERA SENDAGARRIAK

- Eztarriko arazoak eta amigdalitisa arintzeko, gomendagarria da infusioa

erabilita gargarak egitea.

- Sinusitisa arintzeko, gauean enplastua ipin daiteke kopeteen eta masailetan, gehienez hiru egunez. Hurrengo egunetan berbena-ukendua erabil daiteke.
- Zornea kentzeko eta infektatutako zauriak eta babak sendatzeko, edo larruazalean zerbait sartuz gero, gunea berbena-infusioarekin garbi daiteke, eta hiru egunez enplastuak ipini. Zauria sendatu ez bada, aste bat pasatuta berriro egin daiteke tratamendua. Ukendua erabiltzea ere bada gomendagarria.
- Zelulitis-kasuetan, konpresak ipin daitezke, edo berbena-alkohola erabilita igurtziak egin.

**Enplastua:** eskukada bat berbena fresko, oliba-olioa eta arrautza baten goringoan. Berbena zartagin batean ipiniko dugu olio apur batekin. Berbena biguntzen denean, goringoa bota, eta tortilla egingo dugu (berbena-tortilla ere esaten zaio enplastuari). Oihal edo benda batez bildu, eta artatu beharreko eremuan ezarriko dugu, ahalik eta beroen. Enplastua hiru egunez erabili behar da, eta zazpi egunez deskantsatu.

**Igurtzietarako eta konpresetan erabiltzeko alkohola:** 70 g berbena eta 200 ml alkohola, 70 edo 90 gradukoa. Beratzen izan behar da 7-9 egunez. Ondoren, iragazi eta ontziratu behar da, eta argitik babestu.

**Olioia eta ukendua:** hostoak, olioia eta erle-argizaria. Olioia egiteko, kazola batean berbena-hosto sikuak ipini behar dira eta olioaz erabat estali. Su motelean berotu behar da 5-15 minutuan. Hozten utzi behar da. Hostoak kataplasma moduan erabil daitezke; eta olioia, igurtziak edo masajea egiteko. Bestalde, ukendua egiteko, hostoak iragazi eta oliotan erle-argizaria berotu behar da, harik eta desegiten den arte (10-15 g argizari bota behar da 100 ml olio bakoitzeko). Pote txikietan sartu behar da.

#### KONTRAINDIKAZIOAK

Esan moduan, ez da oso landare gomen-dagarria barne-tratamenduak egiteko: edaten bada, ez da tratamendu luzerik egin behar. Haurdun daudenek ezin dute infusioa edan. Tradizioz kanpo-erremedioak erabili dira, adibidez, tortilla eta ukendua.

## Landareak batzeko aholkuak

**Orokorrean:** hartu ondo ezagutzen duzuna; hartu neurritz eta soilik lekuan asko badaude; ez eraman dena, utzi beti zer-bait; hartu bakarrik erabiliko duzun landarearen zatia; ez atera sustraitik, moztu ondo hazten jarrai daitezzen; ez moztu loreen % 20 baino gehiago, zuhaitzak edo zuhaixkak badira; hartu bakarrik erabiliko duzuna, geroago itzuli ahal zara, edo beste leku batzuetara joan; ez jaso gune babestuetan edo parke naturaletan.

**Non:** larreetan eta autorik pasatzen ez den bide-ertzetan; goldatu gabeko basoetan; toxikorik erabiltzen ez den ortuetan eta lorategietan; INOIZ EZ areketan, fumigatutako landetan eta ibaiertz kutsatuetan.

**Noiz:** goizean, ihintza sikatu ondoren; hartu hostoak erabiliko ditugun egunean bertan; hartu loreak goizean eta sustraiak arratsaldean; landareak gorde edo sikatzeko, hobe da ilbehera denean jasotzea.

**Materialak:** eskularruak, artaziak, papezko oihalezko poltsa, zumezko saskiak...



WIKIMEDIA / JAN CHRISTIAAN SEEP



**GURENA**  
ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

**BABESPEKO APARTAMENTUAK**

**EGONALDIAK EGOITZEAN**  
egunean  
gauean  
asteburuetan

---

Unbe txiki bidea 9  
LOIU 48180  
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

**944 530 049**  
[www.gurena.com](http://www.gurena.com)

ZURE NEURRIRA



## SUKALDARITZA

# Gabonetako menua

**GAIZKA EGUSKIZA**  
Sukaldaria

## Itsas zapo-eta bieira-broxeta amerikar saltsan



### Osagaiak:

1,25 kg itsas zapo  
100 g bieira  
100 g barregorri  
50 g piper gorri  
50 g piper berde  
Gatz fina  
0,3 dl oliba-olio  
200 ml amerikar saltsa  
15 g perrexil

### Amerikar saltsa egiteko:

30 g tipula  
10 g azenario  
600 g porru  
30 g tomate  
10 g arroz  
60 g otarrainxka izoztu  
200 ml fumet  
10 ml brandy  
Gatz fina  
10 ml ekilore-olio

### Prestatzeko era:

Broxeta egiteko, itsas zapoa garbitu, eta medailoietan ebakiko dugu. Barregorriak zuritu eta kapelak erreko ditugu plantxan. Tipula, piper gorria eta piper berdea antzeko karratuetan moztuko ditugu. Broxeta modu honetan egingo dugu: itsas zapoa, bieira, barregorria eta barazkia. Barazkiak tartekatuko ditugu, itxura eta kolore aldetik polito gera dadin. Amerikar saltsa egiteko, bestalde, tipula juliana eran moztuko dugu; azenarioa eta porrua, ilargi-erdietan; eta tomatea, laukietan. Tipula eta azenarioa sueztituko ditugu, eta erdi eginda daudenean, porrua botako dugu. Ordu-erdian egingo dugu, eta tomatea gehituko dugu. Hogei minutu gehiago izango dugu egiten. Otarrainxkak gehitu, eta brandyarekin garreztatuko dugu. Ondoren, arroza eta fumeta botako ditugu, estali, eta 30 minututan egingo dugu. Saltsa txikitu, eta bahetuko dugu. Broxeta plantxan erreko dugu. Platerean amerikar saltsa ipiniko dugu, eta broxeta haren gainean. Nahi izanez gero, salteatutako barazkiak ipin ditzakegu albo batean. Perrexila apaingarri moduan erabiliko dugu.



Gabon goxoak opa dizkizuegu  
[www.aikor.eus](http://www.aikor.eus)

## Bakailao-pastela piperradarekin



### Osagaiak:

600 g bakailao-solomo  
150 g patata  
200 ml oliba-olio  
Gatz fina  
Piperbeltz zuria

### Piperrada egiteko:

500 g tipula  
500 g piper berde  
500 g piper gorri  
200 ml oliba-olio  
100 ml tomate-saltsa  
Gatz fina

### Piper-krema egiteko:

50 g tipula  
50 g piper berde  
10 ml oliba-olio  
10 g irin  
150 ml fumet  
Gatz fina

### Prestatzeko era:

Bakailaoa film gardenaz bilduko dugu, edo hutsean ontziratu. Ura 90 gradutan berotuko dugu, eta bakailaoa bertan izango dugu lau minutuz. Uretatik atera, epeltzen utzi, eta orriak aterako ditugu. Bakailao-orriak hobeto kontserbatzeko, gehitu dezakegu bakailaoak bota duen ura, olio apur batekin. Bestalde, patatak ur berotan egosiko ditugu. Hiru mm-ko xerretan ebaki, eta gatzez eta piperbeltzez onduko ditugu. Piperrada egiteko, tipula juliana eran moztu, eta sueztituko dugu. Piper berdea frijitu, ur hotzetan sartu, zuritu eta tira meheetan moztuko dugu. Era berean, piper gorria labeen erreko dugu, 180 gradutan. Labetik atera, estali, eta hozten utziko dugu. Ondoren, zuritu, eta tira meheetan ebakiko dugu. Barazkiak nahastuko ditugu. Tomate-saltsa erabil dezakegu piperrada loditzeko. Azkenik, piper-krema egingo dugu. Tipula juliana eran ebakiko dugu, eta piper berdea, uztaietan. Tipula sueztituko dugu. Piperra gehitu, eta egiten utziko dugu. Irina gehitu, sueztitu, eta fumeta botako dugu. Zenbait minutuz irakiten utziko dugu. Txikitu, txinotik pasatu, eta berriro izango dugu irakiten. Gatza botako dugu. Mingots badago, azukre pixka bat gehitu dezakegu.

Uztai batek lagunduta, modu honetan ipiniko ditugu pastelaren geruzak: patata, bakailaoa, piperrada, piper-krema eta bakailaoa.

## Alsaziako tarta



### Osagaiak:

800 ml esne  
Bost arrautza  
160 g azukre  
60 g gurin  
1,6 kg errege-sagar  
80 g arbendol  
160 g albarikoke-marmelada

### Holandar orea egiteko

#### (2 tarta):


520 g irin  
320 g margarina  
160 g glass azukre  
Arrautza bat  
0,08 g bainila-aroma  
1 g gatz fin

### Prestatzeko era:

Lehenik, holandar orea egingo dugu. Irinarekin sumendi-antzeko bat egingo dugu, eta erdian azukrea, gatza eta bainila ipiniko dugu. Arrautza gehituko dugu, eta margarina pomada-puntuan. Orea ondo landu, eta hoztean utziko dugu jalkitzen. Arrabola erabilita luzatuko dugu, eta molde batera zabaldu. Ondoren, betegarria egingo dugu. Esne epela, azukrea, arrautzak eta urtutako gurina nahastuko ditugu. Sagarrik zuritu, zuztarra kendu, eta xerra mehetan moztuko ditugu. Sagar-xerrak ohorean zabaldu, eta gaintetik likidoa botako diegu. Labeen sartuko dugu 180-200 gradutan, eta bertan 20 minutuz izango dugu. Hozten denean, moldetik aterako dugu. Aurrez txigortutako arbendola-xerrez hautsezatu, eta albarikoke-marmeladak lagunduta aterako dugu.

## DENBORA-PASAĀK

Erletxoak polenez eta nektarrez betata dakar saskia. Lagundu erlauntzera eramateko bidea topatzen.



Aurki itzazu bi marrazkien arteko zazpi ezberdintasunak.



# Urte berri on

teef  
totoan

**zorizketan**  
lezamako euskera elkarte



**ALZORA**  
Sondikako euskara elkarte



**tximintx**  
BIOLOGIAZ  
**DERIOZTARTU  
ZAITEZIE!**



**L  
A  
G  
A  
T  
Z  
U**

ZAMUDIOKO  
EUSKERA  
ALKARTEA  
[www.lagatzu.org](http://www.lagatzu.org)

# Zorionak



eta write berri on!

**TXORIERRIKO MANKOMUNITATEKO UDALAK**  
DERIO LARRABETZU LEZAMA LOIU SONDIKA ZAMUDIO

